

URTEKARIA

20

24



Hemengoa
izatea ona da

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen
kontsumoa sustatzen dugu



EROSKI

zurekin

'Hartzea ematea da', zioen 2024ko Durangoko Azokako leloak. Eta ematea ere ez al da hartzea? Sentsazio hori berori izan genuen ANBOTOn ere azaroan 1.000. alea kaleratu genuenean. Zenbaki borobil hori baliatu genuen zuei guztioi MILA ESKER esateko. Milagarrenera heltzea ezinezkoa izango litzateke proiektu hau babesten duzuen milaka irakurleak barik. Gure komunitatetik gure komunitatearentzat dihardugu, bertatik bertara lan eginez. Horregaitik, urtekari honetako sarrerak balio beza beste behin ere irakurle, babesle, iragarle, langile, sortzaile, kolaboratzaile, banatzaile eta gainerako guztioi ANBOTOn alde egiten duzuen ekarpena eskertzeko.

Hementxe duzue, bada, 2024ko urtekaria, azken 12 hileotako aktualitatearen laburpen lez. Gairen bat bada askotan errepikatu dena, osasungintzako murrizketena izan da hori. Berrizen, Zaldibarren eta Abadiñon hainbat mobilizazio egin dute, batez ere mediku falta salatzeko. Arazo hauek konpondu direla dirudien arren, protesten deitzaileek gaiari jarraipena egingo diotela adierazi dute.

Lerro hauetan ez nituzke aipatu barik utzi gura eskualdean hain estimatuak eta ekinak diren zenbait pertsona: besteak beste, Kristina Mardaras, Enrike Huerta, Nieves Aranoa, Maritxu Ugarte, Jimi Jimenez, Oihana Azkorbebeitia eta Irene Sarrionandia. Pertsona hauen guztien eta beste askoren ibilerak aldizkari honetan ezagutuko dituzue. Bejondeizuela. Aipamen berezia egin gura genioke hainbeste urtean ANBOTOri beti laguntzeko prest egon den Jon Irazabal historialariari.

Urte berri on guztioi!

Jone Guenetxea
ANBOTOk zuzendaria

URTARRILA	4
OTSAILA	8
MARTXOA	12
APIRILA	16
MAIATZA	20
EKAINA	24
UZTAILA	28
ABUZTUA	32
IRAILA	34
URRIA	38
AZAROA	42
ABENDUA	46

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide

**anboto
kide**

**30€
urtean!**

Egin zaitez
Anbotokide eta gozatu
abantaila guztietaz



Oinarri legez euskara
zuen istorioetara
Durangaldeaz kontatu dugu
bertatik bertara

Hogeitalaua joan da
Bosta bertan dugu jada
Berrien bidez berrian berriz
elkartuko gara



Ane Elordi. TOKIKOM

11 egun Korrika euskararen alde

2024ko martxoan, milaka eta milaka euskaltzalek korrika egin zuten euskararen alde. Ekimen honetako koordinatzailea Ane Elordi zornotzarra izan zen

Erreportajea ZORNOTZA

2024an Korrikaren 23. edizioa ospatu da. Martxoaren 14tik 24ra bitartean, milaka eta milaka euskaltzalek korrika egin zuten euskararen alde. Etenik ez duen lasterketa erraldoian, euskaltzaileek Irundik Baionarako ibilbidea egin zuten korrika, Euskal Herriko ia herri guztietatik igarota.

23. edizio honek Durangaldeko kide bat izan zuen koordinatzaile: Ane Elordi zornotzarra. Korrika hasi aurretik, Tokikomek egindako elkarrizketan Elordik esan zuen ardura itzela dela Korrikako arduraduna izatea: "Beti esaten dut lan hau ez dela bakarrik egiten. Talde handi baten

laguntza jasotzen dut eta egunerokotasunean taldean aritzen gara. Korrika euskararen inguruan antolatzen den Euskal Herriko ekimenik erraldoiena da. Gizarte osoa mugiarazten du eta muga bakarra hizkuntza bera da". Bestalde, Korrika aldarrikapenerako ekimena dela eta hori oso presente izatea garrantzitsua dela esan zuen.

"KORRIKAK GIZARTE OSOA MUGIARAZTEN DU ETA MUGA BAKARRA HIZKUNTZA BERA DA"

Argiñola, energia eta komunitatea sortzen Elorrion

Argiñolako kideek herri barruan ahalik eta energiarik gehien sortzea dute helburu nagusi

Herririk herri ELORRIO

2023aren bueltan, Argiñola Energia Berriztagarrien Komunitatea sortu zuten Elorrion. "Trantsizio ekologikoa egiteko sortu genuen Argiñola, bidea errazagoa delako komunitatean egiten bada", esan zuen Carmen Intxausti Argiñolako kideak. Eta gaineratu zuen herri barruan ahalik eta energiarik gehien sortzea izango dela Argiñolaren helburu nagusia.

Horrez gainera, hilabete gutxiren buruan pauso garrantzitsuak eman eta lokal bat ere zabaldu zuten fakturen inguruko azalpenak emateko herriarrei.

Etiketa berdeak mendi lasterketetan ingurumena babestea du helburu

Azkorbebeitia Ubideko lasterketako antolatzaileetarikoa bat da, eta baita Etiketa Berdea ekimeneko sustatzailea

Herririk herri ABADIÑO

Aritz Azkorbebeitia Etiketa Berdea egitasmoaren sustatzaileetarikoa bat da. Egitasmoak mendi lasterketetan ingurumena babesteko eta gizatasuna eta berdintasuna sustatzeko prakti-

ka onak jasotzen ditu. "Etiketa Berdea era etiko batean mendia zaintzeko eta maitatzeko praktika onen dekalogo da. Azken batean, praktika zentzudunak dira". Gaur egun 40 bat lasterketa daude ekimenaren barruan.



Aritz Azkorbebeitia abadiñarra.



Iturriotz baserria.

Iurretako Iturriotz baserria harririk harri mugitzen dabilta

Santa Apolonia aldi baterako enpresa elkarteak garatuko duen proiektuak jasotzen du lekualdaketa

Herririk herri IURRETA

Iurretako Iturriotz baserria harririk harri mugitzen dabilta, XVII. mendeko baserriaren kultur ondarea babesteko. Gune horretako enpresek espazio berriak behar dituzte euren jar-

duera aurrera eramateko eta instalazioak hobetzeko, eta, beharrian horri erantzuteko, baserria 50 metro mugituko dute. Baserria Iurretako Udaren titulartasuna izango duen lur-sailera mugituko dute.



Constan Dacosta.

Dacosta etorri berriei hiritartasunagaz laguntzen

Herririk herri DURANGO
Constan Dacostak zortzi urteko lan boluntarioa egin du Espainiako hiritartasuna eskuratu gura duten etorri berriei gaztelaniaren eta ezagutza kulturalaren gaineko azterketak prestatzen laguntzen.

Bizi berri bat eman diote Paristik Garaira heldutako harmoniumari

XIX. mende amaieran ekarri zuten Paristik Garaiko elizara. Instrumentua mutu egon da hainbat urtez

Herririk herri GARAI
Garaiko Udalak herriko eliza bietan erabili izan den harmoniuma zaharberritu du. Udalak bultzaturiko zaharberritze lanen ondoren, San Anton egunean berriro ere atera zioten doinua.

Elizkizun berean batu ziren Antton Mari Aldekoa-Otalora, zaharberritu aurretik harmoniuma seguruenik azkenengoz jo zuena, eta Iñigo Alberdi, instrumentua zaharberritu ostean lehenengoz jo zuena.



Iñigo Alberdi eta Antton Mari Aldekoa-Otalora.

Karrika, 25 urte eskualdean herritarren sormena bultzatzen

Karrika antzerki taldea 1998an sortu zuten. Antzerki taldekoek dozenaka lan sortu dituzte harrezkero

Kultura DURANGO
Karrika antzerki taldeak 25. urteurrena ospatu du aurten. 1998an sortu zuten, Durangoko Fray Juan de Zumarragako institutuko proiektu batetik. Euskal antzerkigintzak zuen hutsuneeta-

riko bat betetzeko helburuagaz ekin zioten bideari.
Harrezkero, Karrikak dozenaka lan sortu ditu. 2007an, esaterako, Durangoko bonbardaketaren 70. urteurrena zela baliatuta, *Martxoak 31* obra sortu zuten.



Karrika antzerki taldea.

IZURTZA
UDALA
Tel: 946 813 548
www.izurtza.net

Otxandioko nagusien beharrianak berbagai

Udalaren eskariz, Otxandion bizi diren 80 urtetik gorako nagusien beharrianak aurrez aurre ezagutzen dabilta. Profesional talde bat dabil elkarrizketa horiek egiten



Amaiur Magunazelaia, Inge Landaluze, Jaione Uribe, Leire Amuriza, Amaia Oianguren eta Silvia Auñon. OTXANDIOKO UDALA

Herririk herri OTXANDIO

Otxandion herriko nagusien beharrianak aurrez aurre ezagutzen dabilta urtariletik. 80 urte baino gehiago dituzten 101 nagusi daude herrian, eta, udalaren eskariz, eurekin banan-banan batzeko dinamikari ekin zioten. Lan hori egiteko, gizarte eta osasun arloko profesional talde bat osatu zuten. Lantalde profesionaleko kideek ANBOTO-ri azaldu ziotenez, 80 urtetik gorakoekin batuko diren arren, 80 urtetik behera dituzten eta bakarrik bizi diren adineko batzuekin batzea ere bada euren asmoa, "beste ikuspuntu" bat eman dezaketelako.

Ekimenaren helburua nagusien beharrianak zeintzuk diren jakitea da, euren egoera hobetzeko zer egin daitekeen jakiteko. "Pandemian ikusi zen bakardadean bizi den jendea dagoela, ikusten ez ziren errealitate batzuk bistaratu ziren eta eurekin batzeko premia azaleratu zen. Zer behar duten jakin gura dugu, bakoitzak zer zaintza sare duen, eta egunerokotasunean zeintzuk zailtasun dituzten", azaldu zuen taldeko kidea den Inge Landaluzek.

Landaluze gizarte langilea da formakuntzaz, eta gaur egun Aretxabaletako nagusien egoitzako zuzendaria da. Beragaz batera, Amaiur Magunazelaia Otxandioko egoitzako zuzendariak, Jaione Uribe eta Leire Amuriza erizaintzako laguntzaileak, Amaia Oianguren gizarte hezitzaileak eta Silvia Auñon erizainak osatzen dute profesionalen taldea.

Elkarrizketa prozesua

Lan prozesuari dagokionez, lehenengo kontaktua gutun baten bitartez egin zuten, herriko nagusiei euren asmoen berri emateko. Eta, horren ondoren, telefonoz deitu zieten elkarrizketak egiteko. "Nagusi batzuk apur bat bakarrik sentitzen direla esan digute", nabarmendu zuen Landaluzek.

"HERRIKO NAGUSI BATZUEK ESAN DIGUTE APUR BAT BAKARRIK SENTITZEN DIRELA"

Tabira Musika Banda erreperitorio zabalgaz kaleak alaitzen

Josu Otxotorena Zabalza eta Lorena Rodriguez Ahedo Durangoko Tabira Musika Bandako kideak dira

Akuilua DURANGO

Tabira Musika Bandan 25 kide dira gaur egun. Kiderik gazteenak 16 urte ditu, eta nagusienak ia 80. Josu Otxotorena (Tabira Musika Bandako presidentea) eta Lorena Rodriguez (Tabira

Musika Bandako zuzendariordea) dira horietariko bi. Otxotorenak ANBOTOri adierazi zionez, bandan geroago eta gazte gehiago dago, "nahiz eta gutxi diren arren". Bestalde, Rodriguezek adierazi zuen ban-

den funtzioa aldatu egin dela Tabira Musika Bandaren ibilbidean: "Lehen, dantzarako musika jotzea zen helburua; ondo pasatzeko modu bakarra zen. Orain ez dira beharrezkoak, eta ez dira dantzatzeko musikara mugatzen". Erreperitorio aldetik ere aldaketa egon dela esan zuten. "Pasodobleak, balsak, zarzuelak eta halakoak jotzetik, erreperitorio zabalgara eta askoz ere erakargarriagoa izatera pasatu gara", esan zuen Otxotorenak.



Josu Otxotorena eta Lorena Rodriguez.

Zorionak eta urte berri on!

FURESA
FUNDICION NODULAR

Pentsiodunen mugimendua sei urtez borrokan

Herririk herri DURANGALDEA
Durangaldeko Pentsiodunen Mugimenduak orain sei urte ekin zion bideari, eta urte haue-
tan guztietan borrokan jarrai-
tu dute. Astelehenero-astelehe-
nero, eguerdietan, pentsio
duinak aldarrikatzen dituzte
kalera irtenda. "Harro gaude
aberastasunaren bidezko bana-
ketaren aldeko borroka egiteaz
eta erakunde sozial eta sindi-
kalekin partekatzeaz", esan
zuten. Euren eskarien artean,
"1.080 euroko gutxieneko pen-
tsioa" ezartzea dago.

'Bizkarsoro', euskalgintzaren babesagaz zineman

Kultura DURANGO
Josu Martinez zinemagileak (Bil-
bo, 1986) XX. mendean euskarak
eta euskaldunek jasandako erre-
presioa hizpide duen *Bizkarsoro*
filma aurkeztu zuen Durangon.
Zinemaldian estreinatu eta gero,
Bizkarsoro emanaldiak antolatu
zituzten Durangoko euskalgin-
tzagaz elkarlanean.
Martinezek asmatutako herri
batean kokatu zuen istorioa,
baina, fikziozko herri batean
kokatuta egon arren, benetako
istorioak dituela oinarri adiera-
zi zuen.

Itziar Lazkano aktorea Bizkaiko sagardoaren enbaxadore

Aurten 100.000 litro sagardo egin dituzte ekoizleek,
bertako sagarra, Bizkaikoa, erabilia bakarrik

Herririk herri ZORNOTZA
Urtarrilean, Bizkaiko sagardogi-
leek denboraldi berria inaugura-
tu zuten Zornotzako Uxarte sa-
gardotegian. Sagardogileek adie-
razi zuten 100.000 litro ekoiztu
dituztela. Itziar Lazkano aktore

eta antzerki zuzendari bilbotarrak
eman zion hasiera denboraldiari.
Enbaxadore izateko gonbidapena
sorpresa handiagaz hartu zuela
esan zuen Lazkanok. "Nire lu-
rraldeak emandako beste opari
bat da hau", adierazi zuen.



Itziar Lazkano aktorea sagardogileekin eta ordezkari politikoeekin.



Itsaso Gangoitia, Zelaiaetako Ferialeku plazan.

"Buruak eta gorputzak korrika egitea eskatzen didate"

Itsaso Gangoitia abadiñarrak bere kirol ibilbideko
lehenengo garaipena eskuratu zuen Santutxun

Kirola ABADIÑO
Itsaso Gangoitia abadiñarrak
bere kirol ibilbideko lehenengo
garaipena eskuratu zuen urta-
rrilean, Sei Izar Santutxuko
Herri Krosean. Ama izan dene-
tik, marka hobeak egiten dabil

Gangoitia, beharbada presiorik
barik eta beste era batera ko-
rritzen ikasi duelako. "Nire
markarik onenak ama izan eta
gero lortzen nabil. Buruak eta
gorputzak korrika egitea eskatzen
didate", argitu zuen Gangoitiak.

Umeen kirola indarkeriarik bako eremu bihurtzen, Durangon

Udalak, herriko kirol elkarteek eta Kunina aholkularitza
zentroak lankidetzan hitzarmena sinatu dute

Herririk herri DURANGO
Urte hasieran, Durangoko Uda-
lak, herriko kirol elkarteek eta
Kunina aholkularitza zentroak
lankidetzan hasi zuten umee-
kirol arloan jasan ditzaketen
indarkeriazko jarrereri aurre

egiteko. Kunina zentroko Iñaki
Alonsok azaldu zuenez, "umee-
ki eskubidea dute kirola indarke-
riarik bako eremuetan egiteko".
Eta, hori lortzeko bidean, herri-
ko hainbat kirol elkartegaz la-
nean aritu dira urte osoan zehar.



Durangoko udaletxean emandako prentsaurrekoko argazkia.

FAMILIA GARA

Elkarbanatuz, elkarlanean.

KONPROMISOA GARA

Gure ingururekiko eta munduarekiko.

HEZKUNTZA GARA

Aktiboak, berritzaileak, inklusiboak eta humanistak.

DURANGO GARA

Eraginez, sortzaileak izanez.

BESTEENTZAT ETA BESTEETIKIN, GURE MISIOA PERTSONEN ZERBITZURA

Gazatik ihes eginiko 25 palestinar Berrizen

2023ko azaroaren erdialdean, Gaza hiriko lau familia palestinar Berrizko Olakueta aterpetxera heldu ziren. Hile bi eta erdi egin zituzten han. Euren jaioterrian gertatzen dabilena kezka eta arduragaz bizi dutela esan zioten ANBOTOri: "Bakea gura dugu"



Aterpetxe aurrean ateratako argazkia.

Erreportajea BERRIZ

2023ko urriaren 7an, Hamasek erasoaldiari ekin zion Gazan. Harrezkero, milaka gazatarrek euren bizitokia utzi behar izan dute. Gazatik ihes egitera behar-turiko 25 palestinar Berrizko Olakueta aterpetxean izan ziren

hiru hilabetez. 2023ko azaroaren 16an ailegatu ziren bertara, Espainiako gobernuak Jerusalem duen enbaxadaren laguntzari eskerrak. "Hegazkin militar batean etorri ginen. Gazako hiritarrak gara, eta, familiako kideen artean hiritartasun espainiarra

duten kideak ditugunez, handik irteteko zortea izan dugu", adierazi zion ANBOTOri Issam Abushammaiak. Gaza hiriko lau familia palestinarrek hile bi eta erdi egin zituzten Berrizko aterpetxean, eta otsailean Gasteizera joan ziren.

Jaioterrian gertatzen dabilenak kezka eta ardura eragiten dizkiela esan zuten palestinarrek. "Ez dut barbarik topatzen gertatu dena deskribatzeko. *Lurrikara* berba ez da nahikoa, eta *desastre* berba labur geratzen zait. Ez da bizitzen dugun lehenengo gerra, baina honako honek ez du neuririk, urrutiegi joan da", gaineratu zuen Issam Abushammaiak. "Gaza munduko kartzelarik handiena da. Jendea ahalegintzen da, ahal duen neurrian, kartzela horren barruan ahalik eta ondoen bizitzen. 2006tik hona bost gerra bizi izan ditugu. Orain artekoetan denerik galtzen zen: erai-kinak, etxeak, eskola bat... baina erasoak amaitutakoan beti geratzen zen bizitzagaz aurrera egiteko zerbait. Gerra honetan, oster, ez da ezertxo ere geratzen. Kasurik onenean, gerra eteten bada ere, adimenik handiena duenak ere ez du jakingo zer egin", adierazi zuen Ihab El Hindik.

Bestalde, desiratzen duten gauza bakarra bakea dela azaldu zuten. "Nahikoa da. Herritar arruntak gara eta eskubide osoa dugu herritar arruntek duten bizimodua izateko. Nire semeak hamabost urte ditu eta zazpi gerra bizi izan ditu orain arte. Zortea izan du eta bizirik irten da. Baina hurrengoan? Behin betiko irtenbide bat gura dugu, orain", esan zuen Issam Abushammaiak. "Lehenengo, dena eten dadin gura dugu, hildako gehiago ez egotea, min gehiago ez egotea. Gero, preso dauden palestinarrek askatzea gura dugu. Su eten luze bat behar dugu, herritarren itxaropena eta bizi proiektua berriro ere martxan ipintzeko", gaineratu zuen Ihab El Hindik.



Aingeru Bernaola.

Aingeru Bernaola urterik urte hobetzen

Kirola MAÑARIA

Aingeru Bernaola Mañariko pilotariak gorakada egin du azken urteotan, eta ez da oharkabea pasatu. "Txapelketa inportanteak jokatzek beste animo bat ematen dizu", esan zuen.

Gizarte arloa indartuz Elorrión eta Abadiñón

Mankomunitatearen laguntzagaz kontratatu dute langilea. Lanaldi osoa izango du

Herririk herri DURANGALDEA

Mankomunitateak gizarte langile bat kontratu zuen gizarte arloak indartzeko Elorrión eta Abadiñón. Langilea astelehene-tan Elorrión egongo da, udale-txean, eta eguaztenean Abadiñón, Zelaletako bulegoan. Gainerako egunetan Galtzaretan (Durango).





Jenni Alvarado.

Alvaradoren 'Arketipoak' Durangon ikusgai

Jenni Alvarado artista durangarrak margolanekin eta eskulturekin osaturiko erakusketa ipini zuen

Kultura DURANGO

Jenni Alvarado Rodilla artista durangarrak (Durango, 1981) margolanekin eta eskulturekin osaturiko *Arketipoak* erakusketa ipini zuen martxan Durangoko Arte eta Historia museoan, otsail-martxoan.

Alvaradok ANBOTOrri esan zionez, erakusketa honek nobedade bat zuen, lehenengoz eskulturak ere erakutsi baitzuten. "Urte asko eman dut eskulturagaz lanean, baina orain arte ez dut erakusteko aukera ikusi, eta hau Durangon bertan zenez, zeozer berria gehitu gura nuen", azaldu zuen Alvaradok elkarriketaren.



Inauterietako ikuskizunean aritutako herritarrek.

Sasi-berezi eta lagunak inauterien beste eredu bat bultzatzen

Errose Bustintzaren ipuin bat jatorri hartuta, herritarrek kale ikuskizun bat sortu zuten karnabaletarako

"Alexandru sekula ere ez dela lehengoratuko esan digute"

Bizkaiko Auzitegiak 10etik 20 urtera arteko espetxe zigorrak ezarri dizkie Ionita jipoitzeagaitik epaituriko sei gazteri

Herririk herri ZORNOTZA

2021eko uztailaren 25ean istiluak izan ziren Zornotzako zenbait tokitan, eta Alexandru Ionita 25 urteko gaztea jipoitu zuten, Jaurregibarria inguruan. Otsailean, Bizkaiko Auzitegiak 10etik 20 urtera arteko espetxe zigorrak ezarri zizkien gaztea jipoitzeagaitik epaituriko sei gazteri. Auzitegiak "hilketa saiakera" eta "talde kriminal baten parte izatea" egotzi zien euren bosti, eta delitu horien "konplize" izatea seigarrenari, laguntzarik eskatu ez zuelako. "Tira, gutxienez urte

apur batzuetarako kondenak jaso dituzte. Ama beldurtuta zegoen epaia kaleratu aurreko egunetan. Zigorrik egon ezean, Alexandrugaz Errumaniara bueltatzea zeukan erabakita", azaldu zuen Alexandra Elena Buricek, Ionita gaztearen familiaren bozeramaileak. Alexandruren egoerari dagokionez, "sekula ere ez dela lehengoratuko" esan dietela azaldu dute. "Itxaropen handia dugu Alexandruren bilakaeran, eta hobekuntzak lortzea gax izango den arren borrokan jarraituko dugu", gaineratu zuen Buricek.

Herririk herri MAÑARIA

Mañariko karnabalek bisitari bereziak izan dituzte aurten: Sasi-berezi artzaina, mozoloa, aurpegi zuriak, aurpegi beltzak eta gehiago. Ikuskizunaren sorburua Errose Bustintza idazlearen (Mañaria, 1899-1953) *Jentillen bola-lekua* ipuina da. Pertsonaia batzuk ipuin horretakoak dira, eta beste batzuk herritarren imajinaziotik irten-dakoak.

Kafraga elkartetik irten zen ideia, eta herritarren eta herriko elkarten lankidetzari esker egin zuten, udalaren laguntzagaz. Ekimen honegaz, mañariarrek inauterien beste eredu bat proposatu gura izan zuten, herriko tradizioan eta mitologian oinarritzen dena, ohiko eredu kontsumista eta komertzialetik urrunduta.

Gerra zibileko hiru lehegailu neutralizatuta Saibigainen

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek obus bat eta eskuko granada bi topatu zituzten

Herririk herri ABADIÑO

Miaketa bat egiten zebiltzala, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek hiru lehegailu topatu zituzten Saibigainen: obus bat eta eskuko granada bi. Obusa 75 milimetroko artilleria jaurtigaia zen. Eskuko granadak 31 modelokoak ziren, poloniarrek.



Alexandra Elena Buric Ionita gaztearen familiaren bozeramaileak.



ikastolenelkartea



www.ibaizabalikastola.eus



www.kurutziagaikastola.eus

Derrigorrezko Hezkuntza

Batxilergoa

Lanbide heziketa

- HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH
- BATXILERGOA
- GIZARTEATZKO GOI TEKNIKARI TITULUA
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI TEKNIKARI TITULUA
- ETENGABEKO FORMAZIOA: IKASTAROAK

"Horrelakorik berriro ez gertatzea gura dugu"

2024an lau urte bete dira Eitzagan Zaldibarko zabortegia amildu zela. Lau urteren ondoren, ANBOTO Eitzagara bueltatu zen eta Oskar Morales Bildosola bizilagunagaz batu zen. Moralesek euren egoeraren berri eman zigun

Herririk herri ZALDIBAR

Otsailaren 6an lau urte bete ziren Zaldibarko zabortegia amildu, behargin bi harrapatu eta hondamendi ekologikoa sortu zela. Eitzagan gertatu zen, Zaldibarko lurretan dagoen baina Ermura zein Eibarrera begira dagoen 30 biztanleko baserri auzoan. Lau urte joan eta gero, Eitzagara bueltatu zen ANBOTO, gertatu zena gogoratzeko batetik, eta auzotarren bizitza zelan aldatu den jakiteko bestetik. "Lasai gaude. Mediatikoki ez dago zaratarik, ez dago kamioirik, ez dago mugimendu handirik. Badirudi hor, zabortegiaren inguruan,



Oskar Morales Eitzagako bizilaguna.

geratu egin dela dena, hilerri baten antzera. Lanak egiten jarraitzen dute, eta, bien bitartean, gure bizitzak aurrera doaz. Zabortegiko gertakaria ez da eguneroko elkarriketa hemengo bizilagunen artean", adierazi zuen Oskar Morales Bildosola Eitzagako bizilagunak.

Auzi judizialei dagokienez, bi plano mediatikoaren lehengo lerrora irten ziren: langile bien heriotzagaz loturiko epaiketak eta ingurumenagaz loturikoak. Baina, auzotarren artean, bada auzibide gehiago. "Baserritar batzuk auzitegiaren dabilta borrokan, instituzioen tratua nahiko traketsa izan zela iritzita. Eta ez dakit oso ondo noren kontra borrokatu, Verter eta Eusko Jaurlaritza ardurak elkarri leporatzen ibiltzen direlako", gaineratu zuen Moralesek.

Aurrera begira, zabortegia ganoraz zigilatzea eskatzen dute auzotarrek. "Baina, egia esan, zalantza dut hori egin daitekeen. Honelakorik berriro ez gertatzea gura dugu", adierazi zuen Eitzagako bizilagunak.



Tunelaren eremua.

Kanpanzarren tunela, Elorrio eta Arrasate lotzeko

Herririk herri ELORRIO

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Gerediaga-Beasain errepidea amaitzeko. Kanpanzarren 830 metroko luzera izango duen tunel bat egitea da asmoa. Proiektua idazten dabilta.

Surrandien konpartsa 25 urtez Durangoko kaleetan

Aurtengo inauterietan Surrandien Dantza plazaratu dute

Herririk herri DURANGO

25 urte bete dira Kriskitin dantza taldeak Surrandien Konpartsa sortu zuela. Harrezkero, hartza buru dela, surrandiek kolorez eta umorez betetzen dituzte Durangoko kale eta bazterrak.

Aurten, urteurrena ospatzeko, Kriskitineko kideek Surrandien Dantza plazaratu dute inauterietan.

Surrandien konpartsa berreskuratu zeneko ekitaldian jendetza batu zen Durangon, hartza- ren inguruan.



Surrandiak eta hartza.

San Pio, 3
ELORRIO
Tel.: 946 582 261
elorrio@ikastola.eus

ERROETATIK, ORRI BERRIETARA
www.elorriokoikastola.eus
Ateak zabalik dituzue, etorri eta ezagutu gaitzazue!

Fumbarrin behargin bat hil da, teilatutik jausita

Enpresaren aurrean elkarretaratzea egin zuten 45 urteko langilearen lan heriotza salatzeko

Herririk herri DURANGO

Lan istripua gertatu zen Fumbarri enpresan. 45 urteko behargina lantegiko teilatua konpon-tzen zebilen, azpikontrataturiko enpresa batentzat. Enpresa komiteak -LAB eta CCOO- deituta, elkarretaratzea egin eta lan heriotza salatu zuten.

Lekuko aldaketagaz, lemazain berria dute Berbaro elkarte

Pello Zabartek Markel Sanchezen lekua hartu du Berbaro euskara elkarte; kudeatzaile berria da

Herririk herri DURANGO

Berbaro euskara elkarte zu-zendaritzan lekuko aldaketa egon da aurten. Pello Zabarte Narbaisa zaldibartarrak azken bost urte eta erdian kudeatzaile karguan egondako Markel Sanchez Zelaia durangarraren lekua hartu. "Erronka handia da Berbaroren gidaritzat hartzea. Maila pertsonalari dagokionez, eremu berria da niretzat. Gainera, Berbaro Durangoko elkarte da eta ni ez naiz durangarra. Horrek ere badu erronkatik. Bestalde, kontuan hartu behar da Berbaro oso ibil-

bide luzea duen elkarte dela. Komunitate sendoa du, langileak ditu eta proiektu esanguratsu ugari sortu du urte hauetan guztietan. Saltsa askotan sartuta egon da urte hauetan, eta halan-txik dago gaur egun ere", adierazi zuen Pello Zabartek.

Bestalde, kudeatzaile berriak esan zuen Berbarok oso proiektu indartsuak dituela, "altxorra" direnak, eta horiek guztiak zaintzea izango dela bere funtziorik inportanteenetariko bat.

Markel Sanchezek bost urte eta erdiaren "balorazio positiboa"



Markel Sanchez eta Pello Zabarte Berbaroko lantaldeagaz.

egin zuen. "Proiektu berriak ipini ditugu martxan, eta iruditzen zait lehen heltzen ez ginen eremu berrietara heltzea lortu dugula. Alde horretatik, pozik nago. Bestalde, proiektu batzuk egin barik geratu dira; hain zuzen ere, mun-

du guztiari legez, izurriak asko eragin zigulako. Eta bide honek utziriko arantzen artean, badago gauzatu ezin izan dugun proiektu zehatz bat. Ahalegindu gara, baina ez du fruiturik eman", adierazi zuen Markel Sanchezek.

Kokak hartu du Totorikaguenaren lekukoa Iurretako alkatetzan

17 urteren ondoren, Iñaki Totorikaguenak alkate kargua utzi du. Oskar Koka da Iurretako alkate berria

Herririk herri IURRETA

Hamazazpi urtean Iurretako Udalean alkate izan eta gero, Iñaki Totorikaguenak kargua utzi zuen urte hasieran. Guztira, Totorikaguenak 25 urte eman ditu udalgintzan: legegintzaldi bi zinegotzi eta hamazazpi urte alkate. "Ibilbide guztiek amaiera bat dute, edo, gutxienez, puntu eta aparte bat. Eta nik pauso bat eman behar dut albo batera, aldaketa bat behar dut", adierazi zuen Totorikaguenak.

Oskar Koka iurretarrak hartu zuen Totorikaguenaren lekukoa.



Oskar Koka eta Iñaki Totorikaguen.

Aroa Blancoren eta Maite Lopezen 'Euskaldungak' taula gaine

Antzezlanean, euskaldun berri eta euskaldun zaharren artean ohikoak diren egoerak ikusten dira



Aroa Blanco eta Maite Lopez.

Kultura DURANGALDEA

Aroa Blanco eta Maite Lopez antzezleek *Euskaldungak* antzezlan sortu zuten. Antzezlan honetan, euskaldun berri eta euskaldun zaharren artean ohikoak diren egoerak ikusten dira. Ikusleari ezagunak egiten zaizkion solasaldi, eztabaida eta txarto-ulertuak ageri dira. "Euskal kultura oso serioa dela ikusten dugu, oso intentsoak gara, baina ez litzateke hainbesterako izan behar. Eta horri buruz berbetan hasi ginen *Euskaldungak* sortzerakoan", adierazi zuen Blancok.

2023ko udan hasi ziren obra idazten, eta urri inguruan Patri Urrutiari deitu zioten, kanpoko begirada bat edukitzeko. "Elkarrengaz zerbait egiteko gogoia genuen, zerbait serioa", adierazi zuen Maite Lopezek.



ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

Otik 18 urtera arte 

TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

> Banakako bisita pertsonalizatuak

EZAGUTU IKASTOLA! 

946732950 | zornotza@ikastola.eus | www.andramarizornotzakoikastola.eus



Nieves Aranoa eta Maritxu Ugarte, Korrikako petoa jantzita.

"Korrikan Euskal Herriko osotasuna ikusten dugu"

Nieves Aranoa eta Maritxu Ugarte Durangaldeko AEK-ko aitzindarietarik bi dira. Herritarrei alfabetatzen lagundu zieten, dena egiteko zegoen sasoian. 1980an, Korrikaren lehen aldia antolatzen ere aritu ziren. Korrikak 23. aldia egin du aurten

Herririk herri DURANGALDEA

Nieves Aranoa Gerrikabeitia (Abadiño, 1944) eta Maritxu Ugarte Zubizarreta (Iurreta, 1942) lehenengoak izan ziren AEK-ko irakasleen artean. 1980an egin zen lehenengo Korrika antolatzen ere aritu ziren. "Lekukoa eskutik eskura pasatuta

egin zela azaldu ziguten, baina garai hartan gatz zen horrelako zeozer irudikatzea", gogoratu zuen Ugartek martxoan ANBOTON egindako elkarriketan.

Biak lekukoa behin eramandakoak dira. Ugartek Iurretan eramane zuten. "Uste dut negar

batean egin nuela tarte guztia", esan zuen. Aranoak Durangon eramane zuten eta une "magiko" lez gogoratzen du: "Emozio handia sentitu nuen". Izan ere, uste dute "gauzarik ederrena" dela Korrika. "Euskal Herriaren osotasuna ikusten dugu bertan", esan zuten.



AEK-ko kideen erreleboa, Durangon. AEK



Biak Korrikako lekukoa eramandakoak dira.

L'Atelierren ospakizuna Dantzaren Nazioarteko Egunean

Durangoko dantza eskolak egun osoko jaia antolatu zuen. Dantza kalera ateratzea izaten dute helburu

Kultura DURANGO

Durangoko L'Atelier dantza eskolak Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu du aurten ere. Durangoko Landako Gunean egin zuten ekimena, dantza kalera ateratzeko. Urteko egunik berezietarikoa da eurentzat. "Oso polita da adin guztietako dantzariak elkarren ondoan ikustea. Urte osoko momentu bakarra da zentroko ikasle guztiak batzeko. 3 urteko ume bat eta 65 urteko emakume bat ikusi ditzakezu dantzan", azaldu zuen dantza eskolako Oiane Azkonizagak.

Urtean zehar dantza klaseak lehiaketekin uztartzen dituzte. Ildo horretatik, iaz Koreo dantza elkarte sortu zuten, lehiaketetan dabilen gazteen gastuak arintzeko helburuagaz. "Kanpoko lehiaketetara bidaia-tzeak gastuak dakartza, eta gastu horiek familiei eragiten zieten gehienbat. Familia horiei ahalegin horretan laguntzea da helburua", azaldu zuten. Hain zuzen ere, Landako Guneak jaialdia ere baliatu zuten finantziarioa lortzeko, tabernaren eta askotariko zozketen bitartez.

Urtean zehar balletoko, dantza garaikideko eta dantza urbanoko lehiaketetan parte hartzen dute, han eta hemen. Horrelako esperientziak aberasgarriak ei dira umeentzat. "Bizipen handia da eurentzat. Euren pasioa lantzen dute, dantza, eta horren barruan euren ikuspegia zabaltzen dute lehiaketetan beste eskola batzuetako dantzariak ikusita. Lan egiteko beste modu batzuk ezagutzen dituzte, beti ere dantzari lotuta. Euren artean batasun handia sortzen da bidaia egiterakoan, egun asko pasatzen dutelako elkarregaz. Elkarbizitzak asko batzen ditu, eta balio asko lantzen dute", adierazi zuen Azkonizagak. 2024an sari ugari jaso dituzte akademiako dantzariak, azkenak Marbellako Duende sariketa-koak.



L'Atelier dantza eskolako Haizea Corpa, Uma Bracaglia eta Oiane Azkonizaga.

Eskualdetik Tinduferra 24 tona elikagai bidali dituzte

Río de Oren Elkartasun Karabanak bere bidea egin du, aurten ere, Tindufeko errefuxiatuei laguntzeko. Orain urte biko kopurua berdintzea lortu dute aurten

Herririk herri DURANGALDEA

Río de Oro elkarrekin sustatzen duen Elkartasun Karabanaren bitartez, aurten 24 tona elikagai batu dituzte Durangaldean, Tindufen dauden errefuxiatuei laguntzeko. Iaz kopurua herenera jaitsi behar izan zuten, baina urte biko kopurura bueltatzea lortu dute orain.

24 tona horietatik bederatzi dohaintza modura jaso dituzte. Beste hamabostak herriarrek eginiko ekarpen ekonomikoak baliatuta erosi dituzte.

"Estatu osoa kontuan hartuta, Euskal Herrian jasotzen dugu laguntzarik handiena", nabarmendu zuen ekimeneko aurkezpenean Fatma Brahim Salemek, Fronte Polisarioak



Antolatzaile, sustatzaile eta babesleak, Elkartasun Karabanako trailerraren aurrean.

Euskal Herrian duen delegatuak. "Ikaragarri eskertzen dugu laguntza", gehitu zuen.

Eskualdean baturikoa Euskadiko Elkartasun karabanara eraman zuten. Guztira, 100 tona batu zituzten ekimen osoa

kontuan hartuta. Elikagaiak Alacantetik irtendako ferry batean heldu ziren Oranena (Aljeria), eta handik Fronte Polisarioko ordezkariak helarazi zituzten errefuxiatuen kanpamentuetara.

De Pedro zornotzarra argazki Federazioko lehiaketan irabazle

Jesus de Pedro zornotzarrak beste hainbat sari importante jaso du bere ibilbidean; tartean, Goya saria

Kultura ZORNOTZA

Zornotzako de Pedro argazki dendak ikur eta sari zerrenda luzea du erakusgai sarrerako apaletan. Azkena aurten bertan gehitu du, Espainiako federazioak urtero antolatzen duen argazki lehiaketan garaile izan baita Jesus de Pedro.

Koartzatxo hegazti multzo bati ateratako argazkiak eman zion saria. Argazki irabazlea iazko azaroan atera zuen, Urdaibain, hegazti horiek orduan batzen dira-eta toki horretan. Argazki horretxan bila joan zen. "Bane-kien zein argazki gura nuen; koartzatxoaren mugimenduen silueta, batzuk gelditu eta beste batzuk airean...", adierazi zuen martxoko elkarriketetan.

Saria jasotzea "ohorea" dela adierazi zuen. "Oraindino argazkigintzaren dinamikan zaudela esan gura du eta zure bizi-



Jesus De Pedro argazkilaria.

tza osoan egin ezin izan duzun zeozer egiten zabiltzala; hau da, argazkiak zure gustura egiten, libreki", gaineratu zuen.

2019an Argazkigintzako Goya sari bat irabazi zuen 'Ezkontza' atalean, aurretik hainbat bider hautagai izan eta gero.

Ondarea Natura Euskera

Etorkizuna



Durangaldeko
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Durangaldea

www.dma.eus

"Azterketa sakonagoa egin beharra ikusi genuen"

Gerediagak eta Durango 1936 elkarteak, udalaren babesagaz eta Gogoraren diru-laguntzagaz, Durangoko bonbardaketako hildakoak identifikatu dituzte. Zerrendaturiko biktimen azterketaren arabera, hildakoak 213 izan ziren, eta ez 334

Erreportajea DURANGO

Jimi Jimenez historialari durangarrak hiru urtean zehar egindako ikerketak aurrerapau-soak eman ditu biktimen identifikazioan. Azterketa berri honen arabera, bonbardaketan hildakoak 213 izan ziren, eta ez 334, orain arte uste zen moduan.

Jimenezek honela azaldu zuen zerbaiten arteko aldea: "Jende asko, hasieratik zerrenda ofizialetan eta prentsan agertu zena, beste egoera batzuetan hil zen. Ez ziren zuzenean bonbardaketaren ondorioz hil. Beste bonbardaketa batzuetan edo frontean hil ziren; Aramaioko eta Otxandioko fronteetan, esate baterako. Kontuan izan behar da martxoaren 31ko bonbardaketak ez zuela Durangon bakarrik izan eragina. Elorrioko, Elgetako eta Otxandioko fronteetan ere izan zuen. Gerraren eraginez hil arren, ez ziren bonbardaketako biktimak".

Hiru fasetan egin zuten ikerketa. Lehenengoan, hobi komunitetan, bonbardaketan hildako pertsonen harira egin zuten ikerketa, pertsonak identifikatu eta familiekin egonda. "Baina momentu hartan ikusi genuen azterketa sakonago bat egin behar zela, pertsona horiez gainera Zornotzan, Bilbon eta ospitaleetan hil zirenak gehituta. Bon-



Jimi Jimenez historialaria.

bardaketan zauritu ziren pertsonak, baina geroago beste leku batzuetako ospitaleetara eraman zituztenak", azaldu zuen.

Horrela, ikerketan zerrendatik atera den hainbat pertsona dagoen moduan, beste hainbat, zerrendan orain arte egon ez direnak, bonbardaketaren biktima modura sailkatu dituzte. "Ikerketan zehar, 16 pertsona batu ditugu azterketara. Beste 13 identifikatu barik daude, izenik barik daudenez ezin delako jakin nortzuk diren", argitu zuen Jimenezek. Era berean, Aba-

diñoko bonbardaketan hildako lau pertsona ere zerrendan daude. "Gai honek zalan-ta planteatu zigun ikerketan. Mantentzea erabaki genuen, bonbardaketak ez duelako herrien arteko mugarik errespetatzen. Kontuan izan behar da Durangoko bonbardaketa Matienan hasi zela. Biktima batzuk Traña-Matienako baserrietan hil ziren, euren etxeetan. Argi duguna da martxoaren 31 hartan eskudrilla italiar bi banatu egin zirela. Bata Durangora etorri zen, eta bestea Elorriora. Beraz, Aba-

diñoko lau biktimak Durangora etorritako eskudrillaren erasoaren eraginez hil ziren", zehaztu zuen.

"Asko" egiteko

Hiru urtean eginiko lanak datu zehatzagoak lortzeko balio izan die, baina oraindino zer aztertu badagoela esan zuen Jimenezek. "Asko geratzen da ikertzeko, alde askotatik. Esate baterako, nortzuk dira identifikatu barik dauden 13 pertsona horiek? Abadiñon hasitako bonbardaketa horretako biktimak lau dira ala ezagutzen ez dugun biktima gehiago dago? Horregaitik, ikerketa Abadiñon egitea beharrezkoa da. Adibidez, Elorrioko bonbardaketako bost biktima Durangokoaren zerrendan agertzen ziren. Durango eta Elorrio agente diferenteen erasoaren ondorioz bonbardatu zirela aztertu eta gero konturatu ginen horretaz", argitu zuen.

Isiltasunetik argitara

87 urte joan dira Durango bonbardatu zutenetik, eta historialari eta adituak oraindino argitzen dabilta zer gertatu zen. Urte askoan gai honen inguruan nagusitu den "isiltasuna" da horren arrazoietariko bat, Jimenezek ustez. "Lehenengo urteetan ezin zen esan faxistek egin zutela bonbardaketa, horiek ez zutelako egiletza onartzen. Eta eraso gorri, asturiarrei zein errepublikarrei egozten zieten. Honi gehituko nioke bonbardaketak zibilei eragiten dien momentuan ezin dela bereiztu ez erlijiorik ez ideologia politikorik. Honek guzti honek isiltasun itzelagaz estali du gaia. Familiek bazkari batean komentatzen zuten gaia zen, baina ez zeuden prest elkarriketa batean esateko".



Ekimeneko kideak.

Herritarrek eguneko zentroa gura dute Elorrión

Sinadura bilketa bat hasi zuten Bizkaiko Foru Aldundiari eguneko zentroa egiteko eskatzeko

Herririk herri ELORRIO

Elorrión eskaera historikoa da eguneko zentroarena. Horregaitik, hainbat herritarrek sinadura bilketa bat hastea pentsatu zuten. Bere garaian, pentsiodunek eta udalak ahalegina egin zuten baina "ezezko borobilak" jaso zituzten, ekimeneko kide den Josune Mazorriagaren esanetan. Baina ahaleginetan jarraitzeko asmoa dute, Elorrión "beharrezko" ikusten dutelako eguneko zentroa. "Gure herriak ezinbestean behar du. Bizkai guztian 7.000 biztanletik gorako herri bi baino ez daude eguneko zentrorik barik, eta Elorrio da horietako bat", azaldu zuen.

Zaintza sistemaren inguruko aldarriak Martxoaren 8an

Etterik etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen duten beharginen errealitatea ikusarazi zuten mobilizazioetan

Erreportajea DURANGALDEA

Martxoaren 8ko mobilizazioetan, zaintza sistemaren gabeziak salatu eta zerbitzua eraldatzeko neurriak eskatu zituzten. "Etterik etxeko arreta zerbitzua

ezagutaraztea gura dugu, jendeak horri buruz berba egitea", azaldu zuen Zornotzako mugimendu feministako Itxaso Lur Gonzalezek. Izan ere, biztanleriaren batez besteko adina gorantz

doa urteak aurrera egin ahala, eta etterik etxeko zerbitzua geroago eta beharrezkoagoa da. "Esaterako, Zornotzan 65 urte-tik gorako 4.000 biztanle daude. Aurreikuspenen arabera, hamar urte barru 5.500 izango dira. Eta hogeit urte barru, 7.000. Badi-ra datu gehiago; 85 urte baino gehiago izan eta bakarrik bizi direnak 280 bat dira gaur egun", argitu zuen. Horregaitik, diagnostikoa egin eta errealtate hori "kontuan hartzeko" eskatu zuten.



Zornotzako mugimendu feministako kideak.



% 100 URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeauas.eus

Otxandion hamaika une eta gune euskaraz aritzeko

Euskaigintza taldeak, biziberrituta, plaza euskaraz bete du urtean zehar antolaturiko ekintzekin: berbaldiak, aurkezpenak, galdera-erantzunen jokoa...

Herririk herri OTXANDIO

Herri askotan ohikoa den joera Otxandion ere gertatu da: euskara jakintza maila handia dago, baina erabilera bajatzen doa. Kezka hori akuilu hartuta, Otxandioko Euskaigintza Taldeak aurten hamaika ekimen antolatu du euskara kalera ateratzeko. Ekimen batek jakin-mina piztu du eta arrakas-

tatsua izan da: *Emojonk* galdera-erantzunen jokoa izan da, euskal trivial modukoa. 116 herritarrek parte hartu dute joko honetan, batzuek aldiro eta beste batzuek maiztasun handiz. Astero zazpi galdera publikatzen zituzten eta haiei erantzun behar zitzairen. "Korrikaren egunean iragarri genuen irabazlea eta hark, mi-



Maider Arejolaleiba, Aitor Esteban, Jaione Agirregabiria eta Joseba Koldo Gartzia, Otxandioko Euskaigintza Taldeko kideak

'EMOJONK' GALDERA-ERANTZUNEN JOKOAK SALTSA ERAGIN DU ETA ARRAKASTATSUA IZAN DA HERRIAN

krofonoa hartuta eta umorez, eskerrak eman zizkien galderei erantzuten lagundu zioten herritar guztiei", gogoratu zuten euskaigintza taldeko kideek. Anekdotak hori ekintzak izandako harrera onaren isla izan zen.

Aurrera begira, ekimen asko dituzte buruan, eta aurrera eraman gura dituzte. Esaterako, ahalduztze tailerrak, helburu eta hartzaile zehatzagoekin, eta "eragin sakonago" baten bila.

Teknologia digitala hobetzeko programa, Kurutziaga ikastolan

ZEOS programaren bitartez, gazteen ongizate emozionala eta digitala hobetzeko praktikak sustatu gura dituzte

Erreportajea DURANGO

Azken urteetan, hezkuntza komunitatean hainbat kezka piztu da teknologia digitalen erabileraren inguruan. Gai hau lantzeko ikastolan sorturiko GUK16 taldea erreferente da gure ingu-

ruan. Ildo horretan, Kurutziagako urrats bat gehiago emango du ZEOS programan parte hartuta.

Mari Luz Guenaga Kurutziagako presidente eta GUK16 taldeko kideak honela laburbildu zuen ZEOS programa zer zen:

"Programa berritzailea da EAEn. Gure gazteen artean, teknologia digitalen inguruan hartu-eman osasungarriak sustatu gura ditugu, batez ere mugikorrek. ZEOSek Zentzuzko Erabilera eta Osasuna Saretzen esan gura du. Gure ikasleak, haien familiak eta irakasleak teknologiaren erabilera kontziente eta osasungarrian hezteko diseinaturiko programa bat da. Ikuspegi integral horrek hezkuntza komunitate osoa norabide berean gaia lantzen jartzen du".



Mari Luz Guenaga, Iñaki Valle eta Erika Lagoma.



Azken agurra Elorrion Jose Antonio Ardanzari

Jose Antonio Ardanza lehendakari ohia apirilaren 8an hil zen. Azken agurra sorterrian egin zioten. Elorrioko basilika txiki geratu zen lehendakari ohiaren hileta elizkizunean

Herririk herri ELORRIO
Jose Antonio Ardanza lehendakari ohia apirilaren 8an hil zen, Gautegiz-Arteagako bere etxean, Busturialdean, 82 urteaz. Bere sorterrian egin zioten azken agurra, Elorrion. Lehendakari ohiaren hiletan ordezkaritza politiko zabala batu zen, eta Elorrioko Sortzez Garbiaren basilika txiki geratu zen. Bertan izan ziren sasoi horretan lehendakari karguan zegoen Iñigo Urkullu, eta Juan Jose Ibarretxe eta Patxi Lopez lehendakari ohiak, besteak beste.
Iñigo Urkulluk nabarmendu zuen Ardanzak "euskal gizarteagazko entrega eta konpromiso ereduaren ondarea" utzi zituela, eta bere ibilbide pertso-



Ardanza zenaren familia basilikara sartzen.

nala eta politikoa nabarmendu zituen.
1985etik 1999ra lehendakari
Jose Antonio Ardanza 1985etik 1999ra bitartean izan zen lehen-

dakari, Carlos Garaikoetxearen lekukoa hartuta. Aurretik, alkate izan zen Arrasaten, Franco hil osteko lehenengo hauteskundeetan. Gipuzkoako ahalzun nagusia ere izan zen.




Elorrioko eskola publikoan egindako prentsaurrekoko argazkia.

Jaurlaritzak hiru familiari haur eskolan matrikulatzea ukatu die

Familiek helegitea ipini behar izan zuten Eusko Jaurlaritzan, euren haurrak herrian matrikulatu ahal izateko

Herririk herri ELORRIO
Elorrioko eskola publikoko eta institutuko Guraso Elkarteak prentsaurrekoko egin zuten apirilean, herriko hiru familiaren egoera ezagutarazteko. 2024/2025 ikasturteko matrikulak esleitu-ta, Eusko Jaurlaritzak herriko

hiru familiari Elorrioko eskola publikoan ikasle plaza ukatu zietela salatu zuten.
Familiek helegitea ipini zuten Eusko Jaurlaritzan, eta helegitearen ebazpena maiatzan egin zen publiko. Familien eskaria onartu zuten.



ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA
Tel.: 946 827 016
www.zaldibar.eus





Aitor Galarza Aldundiko basozaina da.

"Herrian zikoinak izatea pribilegio handia da"

Aitor Galarza Ibarrondo Bizkaiko Foru Aldundiko basozaina da. Eskualdean abendu-urtariletik uztaile bitartean egoten diren zikoinen inguruan berba egin zuen ANBOTOk beragaz. Sei zikoin dira guztira, eta horien misterioak argitu zizkigun

Erreportajea ZORNOTZA

Zikoinak Durangaldeari gustua hartuta dabilzala dirudi. Eskualdean sei izan ditugu. Bikoite bi Zornotzan egonkortuta egon dira, eta beste ar bi Durango eta Elorrio artean ibili dira emea topatu eta kumaldia izateko ahaleginetan. Aitor Galarza Ibarrondo Aldundiko basozaina da. Biologian doktorea da eta ornitologia ikertzen eta dibulgatzen lan egiten du. Galarzak zikoinen bizi zikloaren inguruan berba egin zuen ANBOTOk. "Zikoinak, normalean, abendu amaieran edo urtarril hasieran etortzen dira hona, eta uztailearen erdialdean alde egiten dute hemendik. Askotan, leku batean biltzen dira lehenengo. Adibidez, Iberiar penintsulako hegoaldean. Eta handik Afrika-igaroaren dirak, Gibraltarreko itsasartetik. Saharaz hegoaldeko lurak izaten dituzte helmuga", azaldu zuen Galarzak. Bestalde, herrian zikoina izatea "gustatu" egiten zaigula nabarmendu zuen: "Gure artean dagoen hegaztia da, gertukoa; ez dago basoan ezkutatuta. Herri batean zikoinak izatea pribilegio handia da".


Turismoa %50 hazi zen Aste Santuan Durangon

Turismo Bulegora 722 lagun joan ziren. Udalak lorturiko "arrakasta" goraipatu zuen

Herririk herri DURANGO

Durango Udalak eman zituen datuen arabera, 2023tik 2024ra bisitari kopurua %50 hazi zen Aste Santuko egunetan. Martxoaren 28tik 31ra arteko egunetan, Kurutzesantu Turismo Bulegoak 722 bisitari erregistratu zituela azaldu zuten udal iturriek.

Herria ezagutzera etorritako gehienak euskal herritarrek eta Espainiako estatutik heldutakoak izan ziren. Era berean, Espainiatik kanpoko bisitarien presentzia ere "nabarmendu" egin zela jakinarazi zuen Durango Udalak.




Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera



Eskaneatu QR kodea

* Izan zaitez berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak



Txaber San Pedro.

Granguanche 'non stop', San Pedroren zorakeria

Bost etapatan banatuta, ia 800 kilometro egin zituen, 17.000 metroko desnibel positiboagaz

Kirola ELORRIO

Txaber San Pedro elorriarrak Granguanche 'non stop' proba egin zuen Kanaria uharteetan. Bost etapatan banatuta, ia 800 kilometro egin zituen, 17.000 metroko desnibel positiboagaz. Etapa batetik beste batera, San Pedrok irlaz aldatu behar izan zuen eta hamaika oztopo gainditu behar izan zuen: bizikleta matxura, 'track'-ak okerreko ibilbidetik bidaltzea... Oztopo bat gainditu orduko beste bat sortzen zitzaion. Dena bertan behera uzteko izan zen momentu batean baino gehiagotan, baina familiaren bultzadagaz erronka guztiak gainditzea lortu zuen.

Hamabost emakumeren erretratuak erakusketa

Maitane Azurmendi artistak egindako erretratuak dira, Durangaldeko Wikiemakumeak taldeak eskatuta


Kultura DURANGO

Mungiako Maitane Azurmendi margolariak *Durangaldeko emakumeen erretratuak* erakusketa ipini zuen. Erakusketak Durangaldeko hamabost emakumeren biografiak batzen ditu. Abiapuntua Durangaldeko Wikiemakumeok taldeko editoreen lana da; izan ere, emakumeen eta gizonen biografien arteko oreka lortzeko lan egiten dute. Bide horretan, artista bizkaitarraren ekarpena gakoa izan da, Azurmendik emakume horien erretratuak egin ditu eta.

"Wikiemakumeak taldekoak euren lana egiten hasi zirenean, argazkirik ez zutela edo kalitate txarrekoak zirela ikusi zuten. Nirekin hartu-emanetan jarri ziren, eta horrela hasi ginen. Erakusketaren ideia Marisa Barrenarena izan zen. Ia 200 erretratu egin ditut. Ez Durangaldekoenak bakarrik, baita Euskal Herrikoenak eta mundu mailakoenak ere. Askok egin ditut eta eurek erabaki zuten Durangaldeko emakumeen ilustrazioekin erakusketa egitea", azaldu zuen Azurmendik.



Maitane Azurmendi margolaria.



Ustaritz Aldekoa-Otalora eskuman, Cartuja futbol zelaian.

Athletic Kopako irabazle, belaunaldi askoren izenean

Hainbat belaunalditako jokalariek hatz puntekin ikutu eta gero, Athleticen aurten irabazi du Errege Kopa

Kirola DURANGALDEA

Athleticek kemen handiz bilatu du Errege Kopa irabaztea, batez ere azken hamarkada eta erdian. 40 urteko lehorteari amaiera ipintzetik gertu geratu dira hainbat belaunaldi, 2009ko, 2012ko, 2015eko, 2020ko eta 2021eko finalek erakusten duten moduan. Azkenean aurten heldu da zaleek hainbeste desio zuten saria: 2024ko Errege Kopa. Poz galanta hartu dute zaleek, eta lasaitu moduko bat kopa etxera ekarri ezin izan zuten jokalariek. Zorraz kitatuta daudela sentitu dute. "Sentipen bat dut talde honek gure sasoikoa ere ordezkatzeko duela. Hau da, guri ere atera digute barruan geneukan arantzatzoa", adierazi zuen Ustaritz Aldekoa-Otalorak, Athleticen jokalaria ohiak. Abadiñarrak 2009ko finala jokatu zuen.

Cartuja zelaian (Sevilla) jokaturiko finalean ez zen Durangaldeko ordezkarik izan. Izan ere, oraindino Athleticen jokalaria zen arren, Jon Morcillo Amorebietan utzita jokatzen zebilen orduan. Edozelan ere, Cartujan bertan ikusi zuen finala. Kopa irabaztea jokalarientzat "liberazio" bat izan zela uste du zornotzarrak: "40 urte denbora luzea da. Zaleek ilusio ikaragarria zuten. Taldeak pisu handia kendu du gainetik, bai".

USTARITZ ALDEKOA-OTALORA: "GURI ERE ATERA DIGUTE BARRUKO ARANTZATXOA"

Elorrio urte osoko turismoa

Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) · Tel.: 94 658 712

www.elorrioturismo.eus

Otxandion Kastillo Bizirik Koordinadora sortu dute

Kastillo Bizirik Koordinadorako kideek salatu zuten Kastillo parke eolikoak eta halako proiektuek "gutxi batzuen interesei" erantzuten dietela. Koordinadorak Ubideko, Legutioko eta Otxandioko askotariko subjektu soziopolitikoak batzen ditu

Herririk herri OTXANDIO

Ubide, Otxandio eta Legutio herrietako lurretan aurreikutsita dagoen Kastillo parke eolikoaren proiektua geldiarazteko, hiru herri horietako hainbat herritarrek Kastillo Bizirik koordinadora sortu zuten. Askotariko subjektu soziopolitikoek osatzen dute ekimena, eta proiektua "bere osotasunean geldiaraztea" dute helburu. "Proiektu hauek gutxi batzuen interesei erantzuten diete, energia berriztagarrietan espekulatzeko eta haiekin negozioa egiteko aukera ikusten dutelako", salatu zuten koordinadorako kideek.

Plataformak eta haize errotak

Plaury Energy enpresak sustaturiko proiektuan, 85x25 metroko oinarria duten hormigoizko plataformak eta 200 metroko lau haize errota erakitzea aurreikusi dutela azaldu zuten koordinadorako kideek. "Otxandioko eliza baino lau bider handiagoak izango diren errotak dira, eta plaza baino handiagoak izango diren hormigoizko plataformak", argitu zuten. Ubidetik metro gutxira, 120 metroko altuerako dorre meteorologiko bat ere aurreikusten dela gaineratu zuten koordinadorako kideek. "Azpiegiturak 164.400 metro koadroko lur eremu publikoan izango du eragina eta 250.000 metro kubikoko lur mugimendua ekarriko du: zortzi futbol-zelai eta 27.000 kamioi baino gehiagoko lur erauzketa", zehaztu zuten.

droko lur eremu publikoan izango du eragina eta 250.000 metro kubikoko lur mugimendua ekarriko du: zortzi futbol-zelai eta 27.000 kamioi baino gehiagoko lur erauzketa", zehaztu zuten.

Alegazioak eta sinadurak

Bestalde, Kastillo Bizirik plataformak parke eolikoaren inguruko informazioa zabalitzeko ekimenak egin zituen hainbat herritan, baita Otxandion ere. Eta maiatz amaierarako 1.000 alegazio baino gehiago lortu zituzten, eta 800 sinadura baino gehiago proiektuaren aurka.



Otxandion egindako elkarretaratzeko argazkia.



XII. mendean Astxikin zegoen gazteluaren errekreazioa.

Astxikin zegoen gazteluaren errekreazioa egin dute

Iñaki Sagredo arkeologoak eta bere lantaldeak egin dute errekreazio birtuala. Hainbat herritarrek parte hartu dute

Herririk herri ABADIÑO

Urteetako lanaren ondoren, Iñaki Sagredo historialariak eta lantalde batek 3D-ko errekreazio bat egin zuten XII. mendean Astxikin zegoen gaz-

telua zelakoa zen erakusteko. Errekreazioa larratevirtual.com/astxiki atarian dago ikusgai.

Orain hamabi bat urte eman zioten hasiera ikerlanari, eta

herriko hainbat kidek parte hartu zuten; tartean, Mila Salterainek eta Arrate Mardarasek. Ikerlanagaz ondarea ez galtzea gura dutela azaldu zuen Sagredo historialariak. "Astxikiko gazteluaren arrasto apurrik ikertu eta egonkortu gura ditugu, behin betiko galdu ez daitezen", azaldu zuen Sagredok.

Aurrera begira, Aldundiaren baimena izatea gura du Sagredok, tontorrean indusketa arkeologiko berriak egiteko.





Eskola komunitateko kideak.

Aterpe berria eta erabilera anitzeko gunea eskolan

Herri Eskolako jolasgunean lanak egin dituzte, eskola komunitatearen eskariei erantzunez

Herririk herri ATXONDO

Eskola komunitateak landuriko proposamena oinarri hartuta, Atxondoko Udalak lanak egin zituen eskolan. Jolasgunean aterpe bat ipini zuten, eta aterpe barruan zurezko eszenatoki bat, erabilera anitzekoa. "Jolasgunea beste modu batera antolatuta, aukera gehiago eskainiko zuela uste genuen, eta ideia horretatik hasi ginen", azaldu zuen Atxondo Herri Eskolako zuzendari Saioa Alzolak.

Bestalde, gunea berria "aukera asko ematen duen espazioa" dela azaldu zuen Alzolak, "umeeke euren askotariko interesak gartzeko gunea".

Berbaro, 35 urtez Durango euskalduntzen

Berbarok bere 35. urteurrena ospatu zuen maiatzean. Jaialdiagaz Durangoko eta Durangaldeko euskararen aldeko aktibistak batu eta aktibatu gura izan zituzten. Bestalde, elkarteko presidenteak azaldu zuen "oso osasuntsu" ikusten duela Berbaro

Erreportajea DURANGO

Berbarok bere 35. urteurrena ospatu zuen maiatzean, Plateruena Kultur Aterpean. *Bagara nor* eslogana lagun, elkarteak euskaratik eragiten eta bidean aurrera egiten jarraitzeko asmoa du. "Euskaraz bizitzeko eta euskararen alde lan egiteko, harrotasunean eta aldarrikapenean ipini gura dugu arreta: euskaldunok bagara nor, euskaltzaleok bagara nor eta berbarotarrok bagara nor", azaldu zuten elkarteko kideek.

Berbarok 35 urteko bide mar-dula egin du Durangon, eta 25. urteurrenetik elkarteko presidentea den Zihortza Irazabal



Berbaroko kideak, Plateruena aurrean.

Olarretak ANBOTOrri azaldu zionez, momentu honetan Berbaro "oso osasuntsu" dago. "Elkartea orain 35 urte sortu zutenek oso helburu argia markatu zuten, eta gaur egun ere helburu hori berori dugu. Jo eta su jarraitzen dugu lanean Durangon euskaraz bizitzeko. Elkarteak 520 bazkide baino gehiago ditu gaur egun, eta bulegoan zortzi lagunek lan egiten dute guztira. Horrez gainera, urtean zehar 100 hezitzaile baino gehiago izaten ditugu laguntzen", azaldu zuen Irazabalek.

Bestalde, Mirari Zugazartaza Aranburu elkarteko idazkariak Berbarok Durangon eta eskualdean duen garrantzia azpimarratu gura izan zuen. "Ez dut Berbarorik bako Durangorik edo Durangalderik irudikatzen", adierazi zuen.

Elkartearen erronken inguruan, Berbarok erronka garrantzitsua duela azaldu zuen Irazabal presidentek. "Euskaltzaleen eta berbarotarren aktibazioa sustatzea dugu helburu. Kostatu egiten da", gaineratu zuen.

Cuelgamurosen, senideen desobiratze lanei jarraitzen

Besteak beste, Jose Larrañaga elorriarraren eta Julen Uribe Usabel berriztarraren gorpuzkiak daude bertan

Herririk herri DURANGALDEA

Cuelgamuros haranean (Espainia) —Erorien Harana lez eza-gutzen dena—, 33.000 hildako daudela uste dute adituek. Durangaldeko hainbat lagun berriztatu dituen desobiratze lanei jarraitzen.

Larrañaga elorriarrenak eta Julen Uribe Usabel berriztarrarenak, besteak beste. Euren senideak han izan ziren maiatzean, Paco Etxeberriak gidatzen dituen desobiratze lanei jarraitzen.



Aitor Aristegi, Paco Etxeberria eta Jesus Aristegi, Cuelgamurosen.

ZORNOTZAKO BARNETEGIA

NEGUAN ZEIN UDAN ZABALIK

BIZI, IKASI, GEROA IRABAZI

zornotzakobarnetegia.eus 94 630 83 04



'Gu be zuek gara' jaialdi solidarioa egin zuten.

Haur minbizia ikusaraziz elkartasun izpiak sortzen

La Cuadri del Hospi elkarteak antolatuta, 'Gu be zuek gara' jaialdia ospatu zuten Durangon. Ekimena udalak eta herriko hainbat ikastetxe eta elkartek babestu zuten

Erreportajea DURANGO

Durangok haur minbiziaren kontrako *Gu be zuek gara* jaialdi solidarioa hartu zuen maiatzean. Jaia La Cuadri del Hospi elkarteak antolatu zuen, Durangoko Udalaren eta herriko klub, ikastetxe eta elkarten auzolanagaz. Antolatzaileek azaldu zuten, jaialdi hau elkartasuna adierazteko eta gogorra den errealitate baten aurrean alaitasun izpi bat eraikitzeke ere izan zen. "Elkarbizitzan oinarrituriko jaia izan zen, aldatzea eta ikusaraztea gura dugun errealitate bat modu positibo batean bizitzea helburu duena. Izan ere, unerik txarrean zaudenean, bizitzaren muga-muga horretan zaudenean, badira une alaiak ere", azaldu zuen Susana del Amok.

La Cuadri del Hospi Gunea

Elkarteak lokal bat du Gurutze-tako ospitalaren ondoan. Eremu hau minbizia duten umeentzat eta euren gurasoentzat prestatuturiko gunea da. Eta jaialdiko antolatzaileek jakinarazi zuten, *Gu be zuek gara* egunean lorturiko dirua harako izan zen. Lokal honi eskerrak, tratamendu onkologikoan dauden umeen egunerokotasuna eramangarriagoa da. Umeek eta gurasoek hartu-eman zuzena izan dezakete tratamenduak bizi arrunta egitea eta kalean ohikoak diren eremuetan egoteko aukera eragozten dienean. "Horrez gainera,

gune horretan umeentzako ekin-tzak ere gauzatzen dira, aktibitateak. Eta eskolak ere ematen dira", deskribatu zuen del Amok.

Era berean, maiatzeko jaialdian baturiko dirua umeek minbiziaren kontrako tratamendua jaso eta gero izaten dituzten bestelako zerbitzuak hornitzeko ere baliatuko zutela azaldu zuten elkarteko kideek. "Fisioterapia lantzeko edo tratamenduak eragindako arreta-defizita psikologoei lantzeko adibidez", gaineratu zuen del Amok.

Gune irekia

Bestalde, La Cuadri del Hospi elkarte irekia dela azpimarratu gura izan dute behin eta berriro bertako kideek. Denak balio du komunitate horren zati izateko, baita haur minbizaren errealitatea bizitzea tokatu ez zaionari prespektiba berria emateko ere. "Izan ere, La Cuadri del Hospi elkarte osatzen duten guraso eta umeengandik harago doan zerbait da. Lagundu gura duen edo elkarreagaz esku hartu gura duen edonor da La Cuadri del Hospi. Daudenak eta jadanik gure artean ez daudenak ere bai", gaineratu zuen del Amok.

LA CUADRI DEL HOSPI ELKARTE IREKIA DELA AZPIMARRATU DUTE BERTAKO KIDEEK

Familiei mina arindu dien aurkikuntza egin dute Zornotzan

Adolfo Zengotitabengoa eta Jaime Iñiguez milizianoen gorpuzkiak senideei bueltatzeko ekitaldia egin zuten



Bittori Zengotitabengoa, Adolfo Zengotitabengoa zenaren gorpuzkien ondoan.

Herririk herri ZORNOTZA

Zornotzako familia bik euren senitartekoen gorpuzkiak berreskuratu dituzte aurtan. Herriko hilerrian Adolfo Zengotitabengoa eta Jaime Iñiguez milizianoen gorpuzkiak aurkitu eta identifikatu zituzten, eta euren senideei bueltatu zizkieten. Zelaieta zentroan egindako ekitaldian, identifikaturiko pertsona bien ondorengo asko batu ziren. Tartean, senitarteko zuzen bat ere bai: Bittori Zengotitabengoa, Adolfoaren alaba. Bost urte zituen aita galdu zuenean, eta 92 urte dituen berreskuratu ditu haren gorpuzkiak.

Bestalde, gorpuzkiak identifikatzeak "mina arintzeko balio izan diela" esan zuten milizianoen senitartekoei ekitaldian.

Mendiolako auzo eskola, mende bat auzotarren topaleku

Errekatxo elkarteak jaia egin zuten mendeurrena ospatzeko

Herririk herri ABADIÑO

1923-1924ko ikasturtean Mendiolako auzo eskola zabaldu zuten, Julene Azpeitia eta Feliziana Astorkia bertan maistra zirela. Mendiolako eta inguruko auzoetako hainbat ikasle joan zen eskolara alfabetatzeko asmoz, 1987ra arte. Urte horretan zarratu egin zuten eskola. Lehengo eskola zaharrean Errekatxo elkarte dago gaur egun, eta mendiolarren elkargune izaten jarraitzen du. Elkarteak 1988an erregistratu zuten eta lehenengo batzar nagusia urte horretako maiatzean egin zuten. Auzo eskolako eraikina ikur

garrantzitsua da Mendiolako auzotarrentzat, eta eskolaren mendeurrena jaieguna batez ospatu zuten. Bestalde, Mendiolako auzo eskolan ibili zirenak ikasle eta irakasleen bizipenak batzen dituen dokumentala egin zuten Markel Onaindia kazetari iurretarrak.

1923-1924KO IKASTURTEAN MENDIOLAKO AUZO ESKOLA ZABALDU ZUTEN

Tradizioa eta
bilakaera.
Baqué kafea 100
urte baino
gehiago euskal
gastronomiaren
aberastasunean.



Café
BAQUÉ


CAFFÈ
BAQUÉ

CAFFÈ
BAQUÉ

CAFFÈ
BAQUÉ

CAFFÈ
BAQUÉ

BAQUÉ
Café



Grafikoa: Saretzen • Iturria: RIAC-Euskadi • Norekin sortua Datavrapper

Datuak: EAEko animaliak identifikatzeko erregistro orokorra.

Ume baino txakur gehiago dago eskualdean

Saretzen egitasmoaren markoan, ANBOTOk, TOKIKOMek eta EITBk, elkarlanean, txakurrek Durangaldean duten presentzia aztertu dute. Eskualdean 11.429 dira hamabost urtetik beherako biztanleak, baina txakurrak gainetik daude; 13.020 dira

Erreportajea DURANGALDEA

EITBk eta TOKIKOMeko hedabideek, tartean ANBOTOk, maskotei buruzko datuak aletu zituzten ekainean. Eta bertan, datu estatistikoek adierazi zuten, ume baino txakur gehiago dago Durangaldean. Eskualdeko luze zabalean, 11.429 dira hamabost urtetik beherako biztanleak, baina txakurrak gainetik daude; 13.020 dira. Eta zenbat txakur dago ume ba-

koitzeko? Eskualdean aldea dago udalerri batetik bestera datuei erreparatuta. Izurtzan, adibidez, ume bakoitzeko ia lau txakur daude. Mallabian, hiru. Otxandion bikoitza da kopurua, eta Abadiñon zein Berrizen txakur bat pasatxo dago ume bakoitzeko. Durangon, adibidez, nabarmen txikiagoa da biztanleria-txakur erlazio hori. Hamar biztanleko txakur bat baino ez dago.

Murueta Torre dorretxea zabalik

Dorretxeak Udal Euskaltegiaren egoitza hartu du



Murueta Torre dorretxe birmoldatua erakusteko ekitaldia.

Herririk herri DURANGO

Murueta Torre dorretxeak, kulturarteko espazio asoziatiboa izan gura duen azpiegitura berriak, zabaldu ditu ateak dagoeneko. Ikasturte berriagaz batera, eraikinak Udal Euskaltegiaren egoitza hartu zuen. "Honek hezkuntza esperientzia hobea eskainiko du", azaldu zuen Paule Sanchez euskara zinegotziak.

Lanei dagokienez, Mireia Elkoiroribe alkateak adierazi zuen proiektu "anbiziotsua" izan dela, eta dorretxeak 2,5 milioi euroko inbertsioa izan zuela. "Azpiegitura modernoa da, eskuragarria, eta askotariko ekintzak antolatzeko egokia. Eraikina birgaitze urbanoaren ikur bihurtu da", adierazi zuen alkateak. Bestalde, helburua parte hartzea eta kultur hartu-emana sustatzea ere badi-rela azaldu zuten.

Barakaldok igoera bi lortu ditu Imanol de la Sotaren eskutik

Barakaldoko entrenatzailea lurretan bizi da

Kirola IURRETA

Iurretan bizi den Imanol de la Sotaren (Santurtzi, 1975) aginduetara, Barakaldok igoera bi lortu ditu segidan: Hirugarren Federaziotik Lehenengo Federaziora. Barakaldo pisu handiko klub da, ehun urte baino gehiago dituen. Eta de la Sotak historia egin du beragaz. "Partidua amaitu bezain laster, barruan pilaturiko tentsioa askatu nuen. Hamar bat minutu negarrez eman nituen, maila honetan tentsio handia pilatzen delako kanporaketetan. Zaleak zelai barrura sartu eta

denon arteko batasun hori oso polita izan zen. Oroitzapen ahaztezinak dira", azaldu zuen Barakaldoko entrenatzaileak.

De la Sotaz gainera, Durangaldeko jokalaririk ere izan dira arrakastaren parte: Ekaitz Molina eta Imanol Torre abadiñarrak.

**BARAKALDO
HIRUGARREN
FEDERAZIOTIK
LEHENENGO
FEDERAZIORA IGO DA**



Usue Egia eta Irati Eguren.

Euskarazko komikigintza, genero ikuspegitik

Kultura DURANGALDEA

Usue Egia durangarrak eta Irati Eguren berriztarrak Tupust kolektiboak kaleraturiko komiki bilduman parte hartzen dute. Ekainean, hirugarren zenbakia kaleratu eta aurkezpenak egin zituzten.

Elorrio Futbol Taldeak mendeurrena bete du

Urte osoan zehar ekitaldi ugari egin dute 100 urteak ospatzeko. Liburua eta abestia kaleratzeaz gainera, erakusketa bat eta askotariko partidua egin dituzte. Ferixa Nausikoetako pregoia irakurrita eman zieten amaiera mendeurrenako ospakizunei

Erreportajea ELORRIO

Elorrio Futbol Klubak 100 urte egin ditu aurtan. Arin esaten da, baina ez da edozelako lorpena, Bizkaiko klubik beteranenetariko da eta. Horregaitik, mendeurrena ekitaldi sorta zabal batez ospatu dute urtean zehar. Hedabide honek klubeko Manuel Garcia presidentea eta Rakel Marquinez presidenteordea elkarriketatu zituen, ekaineko azken zenbakian. Arduradun biak pozik agertu ziren ospakizuna herrira zabaltzeko egindako lanagaz: "Jende askok urte askoan egindako ekarpenari eskerrak egin ditu Elorrioko taldeak 100 urte. Jende hori po-



Futbol taldeko Manuel Garcia presidentea eta Rakel Marquinez presidenteordea.

zik eta eroso sentitu dadin gura izan dugu", azaldu zuten. Eta hori guzti hori halantxik izan zedin, gizon beteranoen triangeluarra eta emakume beteranoen lagun arteko partidua jokatu zituzten. Horrez gainera, jai bat egin eta erakusketa bat antolatu zuten, eta liburu eta abesti bana argitaratu zuten, besteak beste. Irailean, ospakizuneko ekitaldirik jendetsuenetariko bat egin zuten, Elorrioko udaletxeko balakoiro igo eta Ferixa Nausikoetako txupinazoa botata.

Aurrera begira

Mendeurren ez ezik, Garciak eta Marquinezek etorkizunari buruz ere berba egin zuten, harrobia egon badago eta. Klubak 21 talde eta 300 bat neska-mutiko ditu harrobian. "Asko dira eta pozik gaude. Ulertu behar da jokalar bakoitzak bere beharrian eta ilusioak dituela. Hori denori denen gustura kudeatzea lan nekeza eta konplikatu da, jakina; taldeak egiterakoan eta abar. Ahalik eta ondoen eta orekatuen egiten ahalegintzen gara", azaldu zuten futbol taldeko arduradun biek.



BERRIZKO UDALA
Tel.: 946 824 036
www.berriz.eus

Euskaraz eta berdintasunean bizi egunez egun!





Laida Uriarte, Andoni Urtiaga eta Jose Alberto Narbaiza. AITZIBER BASAURI

"Iremiñe Berrizko bizitzan egon da beti"

Berrizko Iremiñe dantza taldeak 55 urte egin ditu aurten. Urteurrena ospatzeko, ekainaren 16an hainbat belaunalditako dantzariak batu ziren Berrizburun. ANBOTOK Laida Uriarte, Andoni Urtiaga eta Jose Alberto Narbaiza elkarriketatu zituen

Akuilua BERRIZ

Ekainaren 16an, Berrizburuko futbol zelaia dantzariz eta dantzariak ikustera joandako herriarrez bete zen. Ez zen gutxiagorako. Herriko dantza taldeetarikoa bat den Iremiñek 55 urte bete zituen plazaratzeko grinari eta ohiturari eusten.

Ospakizun ekitaldian 170 bat dantzari batu ziren; euren artean, lehenengo taldeko bost. Andoni Urtiagak pozarren bizi izan zituen ospakizunaren atariko entsegu egunak: "Dantzari zirenik ere pentsatuko ez nuen lagun asko ikusi dut urteurrenerako entseguetan. Ia herri osoak dantza

egin du Iremiñen, eta hor gaude oraindino", esan zuen. Laida Uriartek ere jendearen gogoaz aspimarratu zuen. Entseguetan igarri zuen hori: "Gogotsu daudela esango nuke, gogo handiagaz datoz entseatzera. Batzuek beldur apur bat dute hamar urtean ez dutelako dantzan egin,

baina gogo handia dute eguna heltzeko. Beste batzuek pena dute taldea utzi zutelako, eta orain poza hartu dute plazara irteteko aukera dutelako berriro".

Jose Alberto Narbaizak urte mordo egin du Iremiñen. "Taldea sortu eta urte bira hasi nintzen ni. Orduan, Iremiñekoek abesten zituzten Santa Ageda koplak, eta, kantatzeko asmoz joan ginenean, ea dantzan ikasi gura genuen galdetu ziguten. Halantxik hasi ginen hamar bat lagun. Gero, bost urteren barruan, nesken taldea sortu zen lehenengo, eta umeena gero", azaldu zuen. Horrez gainera, 55 urteotan taldea batuta mantendu dela aspimarratu zuen Narbaizak: "Nahiko ondo mantendu gara beti. Iremiñe ez da dantza taldea izan bakarrik. Taldeak jende asko elkartu du eta herriko hainbat ekintzatan parte hartu du beti. Herriko bizitzan egon da. Beste herri batzuetako egoera ikusita eta Berrizen talde bi daudela aintzat hartuta, harrobia badagoela esango nuke. Sanantonioetan 50 bat ume irten dira dantzara aurten", gaineratu zuen.

Belaunaldi berriei dagokienez, Laida Uriartek eta Andoni Urtiagak umeen gogoaz aspimarratu zuten: "Pandemiak min egin zuen eta kostatu egin zitzaigun bueltatzea. Baina umeak gogotsu dabilta eta hori seinale ona da".

Jaietako pregoilari

Ospakizunak ez ziren Berrizburuko alardera mugatu. Iremiñek San Pedro eta Santa Isabel jaietako pregoia irakurri eta txupina bota zuen udaletxeko balkoitik. Gero, jaietako ohiturari eutsita, Dantzari Dantzako azken entsegu egin zuten.

Elkarretaratzea Iurretako sexu eraso salatze

Sexu eraso egitea egotzita, Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen joan zen ekainean Iurretan

Herririk herri IURRETA

Ertzaintzak gizonezko bat atxilotu zuen Iurretan ekainean, "sexu askatasunaren kontrako delitua" egitea egotzita. Atxilotua epailearen esku utzi zuten. Anderebidek eta Auskari Ijorretako Neska Gazteak taldeak elkarretaratzera deitu zuten.



Gorrotxategi eta Granados.

Erreleboa Durangoko Gorrotxategi agrizentroan

Beñat Granadosek 58 urteko ibilbidea duen Gorrotxategi dendaren ardura hartu du

Akuilua DURANGO

Hainbat dendak pertsiana jaitsi dute Durangaldean; neurri batean, errelebo faltagaitik. Beñat Granados eta Marijo Gorrotxategi txanponaren beste aldean daude. Marijok aitak sorturiko negozioa eraman du azken 45 urtean, Inma ahizpagaz. Orain, erreleboa eman dio Beñati.

LGBT komunitateak eskualde bizigarri bat eskatu du kalean

'Sexerbestera' joan barik, euren identitateak eskualdeko herrietan bizi ahal izatea eskatu zuten

Herririk herri DURANGALDEA

Harrotasunaren Nazioarteko Egunagaz bat eginda, Durangaldeko LGBT komunitatea kalera irten zen ekainaren 28an, "egunerokotasun bizigarri bat bermadezaketaren sarean bila". Adiera-

zi zuten, "gauzak ez dira hainbeste aldatu" azken hamarkadetan, eta komunitateko hainbat kidek "oraindino ere kostata" izan dezakete "bizitza duin bat" eskualdeko herrietan. Manifestazioa egin zuten Abadiñon.



Ekainaren 28an manifestazioa egin zuten Traña-Matienan.



Kimetz Lopez de Etxezarreta.

Durangar batek lortu du selektibitateko emaitzarik onena

Akuilua DURANGO

Kimetz Lopez de Etxezarreta durangarrak 13,7ko nota atera du Unibertsitatera Sartzeko Hautaproban (selektibitatea). Ekainean egindako elkarrizketan, ekonomia edo komunikazioa ikastea zuen buruan.

"Antzerkia kontzientzia sortzeko tresna bat da"

Bar Santi konpainiako Juanjo Otero iurretarrak eta Aritza Rodriguez zaldibartarrak *Lanean Jarraitu 75* izeneko obra estreinatu zuten Leioako Umore Azokan. Obrak estiloa nahiko definituta duela diote konpainiako kideek: "Oso konpainia makarra gara"

Kultura IURRETA / ZALDIBAR

Erretiro adinaren atzeratzea abiapuntu hartu, eta populismoaren eraginei buruzko *Lanean Jarraitu 75* antzezlanaren sortu zuten Bar Santi konpainiako Juanjo Otero iurretarrak eta Aritza Rodriguez zaldibartarrak. "Mezu populistek botearearen mezua errepikatzen dute. Langileria lanean gura gaituzte 75 urte egin arte, euren luxuzko bizitzari eusten jarraitzeko", adierazi dute konpainiakoek. Obragaz, gertutik bizi den egunerokoaren erradiografia egin zuten, hain berezkoa duten ironiaz eta umoreagaz bilduta. Besteak



Juanjo Otero eta Aritza Rodriguez. BAR SANTI KONPAINIA

beste, Zaldibarren, Berrizen, Zornotzan, Durangon eta Etorrion aurkeztu zuten obra. "Gure ikuskizun guztietan kritika soziala sartzen ahalegintzen gara, beti ere umorearen bitartez. Horren eraginez, hautsak harrotzen ditugu, baina beti uste izan dugu mezua errazago heltzen zaiola publikoari umorearen bitartez, modu erosago batean. Azken finean, hobe da informazio bat txistoren baten bitartez helaraztea, besterik barik, testu baten bitartez barik. Eta gai sozialek beti dute gaurkotasuna, beti dira jorratu beharrekoak. Antzerkia barruak astintzeko eta kontzientzia sortzeko erreminta bat dela uste dugu", azaldu zuten konpainiakoek.

"GURE IKUSKIZUN GUZTIAN KRITIKA SOZIALA SARTZEN AHALEGINTZEN GARA"

Konfiantzan hazi eta hezi

BISITA PERTSONALIZATUAK URTE OSOAN ZEHAR

Bruno Mauricio Zabala Kalea, 6
48200 Durango, Bizkaia

neversikastetxea.com

946 81 09 46

@neversikastetxea



Igor Agirre, Orland Isoird eta Erramun Osa, goi tentsioko linea berria ipini gura den eremuan.

Hiru alkate goi tentsioko linea berriaren kontra

Mallabiko, Berrizko eta Garaiko alkateak Castejón de Valdejasa (Aragoi) eta Gatika (Bizkaia) lotzea aurreikusten duen goi tentsioko linea berriaren kontra agertu ziren. Hiru udalek errekurtsioa aurkeztu dute lurrak, herritarren osasuna eta fauna kaltetu daitezkeelakoan

Herririk herri. DURANGALDEA

Mallabiko, Berrizko eta Garaiko alkateak Castejón de Valdejasa (Aragoi) eta Gatika (Bizkaia) lotzea aurreikusten duen goi tentsioko linea berriaren kontra agertu ziren uztailan. Igor Agirre, Orland Isoirdek eta Erramun Osak adierazi zuten, proiektua "ezin da onartu eta ez dago justifikatzerik". Azpiegiturak "paisaiak hondatu eta pertsona uga-

riren nahiz zeharkatutako eskualdeen etorkizuna baldintzatuko" lukeela iritzi diote, eta, gaineratu zuten, "ez dauka ezelako zentzurik trantsizio energetikoaz berba egiteak, horretarako lekutan sortzen diren energia berriztagarriak erabili behar badira kontsumo gunearen ikuspegitik". Hartara, proiektuaren kontrako alegazioak aurkeztu eta helegitea ipini zuten Ingurumen Zuzendaritzak proiektuari argi berdea ematen dion ebazpenaren kontra.

Kalteen zerrenda

Proiektuak ekarriko lituzkeen kalteak zerrendatu zituzten: eremu elektromagnetikoak herritarren osasunari eragitea, galtzeko arriskuan dauden edo kalteberak diren animaliak mehatxatzea, eta herritarren lurretan elektrizitatea garraiatu ahal izateko eraiki beharko liratekeen dorreak altxatzea. Hamahiru dorre eraikiko lirateke Berrizen, sei Garain eta bat Mallabian. "Gure bizilagunak eta gure ingurunea defendatuko ditugu, eta beste erakunde batzuek gure ahaleginagaz bat egitea eskatuko dugu", esan zuten.

Plaza eraberritu, izaera polifazetikoari eutsita

Izurtzako Udalak batzar zabalak egin zituen plazaren eraberritzearen inguruan herritarren iritzia eta beharrianak jasotzeko. Plazako eremu batean estalpe bat egiteko asmoa dute, eta plaza eraberrituak umeen parkea ere izango luke

Herririk herri. IZURTZA

Udalak gaur egungo beharrianetara egokitu gura du herriko plaza. Egitasmo horren barruko lehenengo urratsa batzar zabalak egitea izan zen, egitasmoa herritarrei aurkeztu eta euren ideiak jasotzeko. Filosofia orokor modura, plazak orain duen "izaera polifazetiko" mantentzea eskatu dute izurtzarrek, Oihane Irastorza alkatearen esanetan. Plazako beste eremu batean estalpe bat egiteko asmoa dago, eta plaza eraberrituak umeen parkea ere izango du. Horrez gainera, plaza naturalizatzea da beste helburuetariko bat, zuhaitzak eta berdeguneak izango dituen.



Izurtzako plaza herrigunearen zentroan dago.



Urtza Uriarte, Iraunkor elkarteak Zornotzan duen denda.

"Kontsumo ohituretan eragin behar da osasuntsu bizitzeko"

Iraunkor elkarteak tokiko ekonomia zirkularra eta iraunkorra bultzatzea du helburu, ekologikoa lehenetsita

Herririk herri. ZORNOTZA

Zornotzako Iraunkor elkarteak 2016an jaio zen. Produktu ekologikoa lehenetsita, tokiko ekonomia zirkularra eta iraunkorra bultzatzea du helburu. Gaur egun 60 bazkide dira, ekoizleak eta kontsumitzaileak. Horieta-

riko bat Urtza Uriarte da (Etxano, 1984). Bere ustez, "kontsumo ohituretan eragitea ezinbestekoa da osasuntsu eta modu jasangarrian bizitzeko". Uztailan kanpaina bat ipini zuten martxan kontsumo ohituretan eragiteko eta elkartearen ezagutarazteko.

Murgoitiok domina bi munduko txapelketan

Gontzal Murgoitio elorriarrak domina bi irabazi zituen Montenegron jokatu zen mendiko proben munduko txapelketan; domina biak 23 urtez azpiko mailan lortu zituen

Kirola ELORRIO
Gontzal Murgoitiok (Elorrio, 2001) uztaillean lehiatu zuen, azkenengoz, 23 urtez azpiko mendiko lasterketen munduko txapelketa. Domina batezaz itxi gura zuen bere bizitzako etapa hau, eta bete zuen helburua. Izan ere, zilarrezko domina irabazi zuen mendi lasterketan. Kilometro bertikalean, oster, podiumaren atarian geratu zen, laugarren postuan. Proba biak konbinatuta egiten den sailkapenean, Murgoitio hirugarren geratu zen: brontzezko domina. Egindako lanagaz "oso gustura" agertu zen. Prestakuntza gogorraren saria izan zen. "Inoiz baino gehiago zaindu eta entre-



Murgoitio podiumean, ezkerrean, Edgar Dumasegaz eta Ludovic Fernandezegaz.

natu naiz", esan zuen. Aurten goa hirugarren munduko txapelketa izan du eta bere onena eman zuela adierazi zuen. Mendi lasterketa ez du berehalakoan ahaztuko. Ez domi-

nak ematen dion pozagaitik bakarrik, baita asko sufritu zuelako ere. "Mendiko lasterketa batean sekula ez bezala sufritu nuen", esan zuen Murgoitiok.



Lier Arrien Belgikan egon da, llargues modalitateko liga jokatzeko.

"Indarra beti izan da nire arma. Badut bizitasun hori"

Lier Arrien (Zornotza, 2002) Llargues izenagaz ezagutzen den pilota modalitatean lehiatzen da

Kirola ZORNOTZA
Lier Arrienek Llargues izenagaz ezagutzen den pilota modalitatean jokatzeko du. Valentzian egindako Europako txapelketan ere jokatu zuen eta belgikarrak harrituta geratu ei ziren. Gero,

Belgikan jokatzeko gonbidapena egin zioten, eta hango ligan jokatu zuen udan. Indarra da bere dohainetariko bat, ANBOTOri azaldu zionez: "Indarra beti izan da nire arma. Badut bizitasun hori", adierazi zuen.





durango

**Eguberri
zoriontsuak eta
2025 urte berri on!**



Marta Calvo ikerlaria, Ibaigoiti Jauregiaren aurrean.

Doktrinamendu frankista ahalbidetzeko egoitza

Erregimen frankistak umeentzako barnetegia ezarri zuen Abadiñoko Ibaigoiti jauregian. Auxilio Social programaren bitartez ezarritako egoitzaren historiaren nondik norakoak azaldu zizikion Marta Calvo ikerlari durangarrak ANBOTOri

Herririk herri ABADIÑO

Marta Calvo Larralde (Durango, 1990) Gerediaga elkarteak ematen duen Durangaldeko Ikerlari Gazteen Beka irabazi zuen apirilean. Horrek erregimen frankistak Abadiñoko Ibaigoiti jauregian ezarri zuen umeentzako barnetegiaren historia ikertzeko aukera eman dio, Au-

xilio Social programaren bitartez ezarritako Nuestra Señora de Begoña egoitzaren historia, hain zuzen ere. Dokumentuak ikertzen eta barnetegian bizi izandakoen testigantza jasotzen lan egin du.

Abadiñoko Ibaigoiti eraikina 1894an altxatu zuten, eta 1913an berritu. Erregimen Frankistak

Auxilio Social programaren barruan sorturiko barnetegi bat izan zen eta hirutik zazpi urtera arteko umei zuzenduta zegoen. "Ikerlari batzuek diote kontzentrazio espazio bat izan zela, bertan erabilitako metodologia eredu totalari lotuta zegoelako. Umeak ez ziren barne-tegitik irteten, bertan hazten

zituzten. Eta behin adin bat igarota, beste barnetegi batera eramaten zituzten", azaldu zuen Calvok. Doktrinamendu frankistaren hastapena ahalbidetzen zuen egoitza izan zen. "Kantu-jolasen bitartez, erregimenari loturiko balioetan hezten zituzten, balio erlijioso eta militarretan. Adinari egokituriko doktrinamendu zentro bat izan zen. Adinez nagusiagoak ziren gazteekin, beharbada, bestelako portaera, jarrera edo eskakizunak izango zituzten. Baina umeekin jaunartzea izaten zen helburu nagusia", gaineratu zuen ikerlari durangarrak.

Bizkaian lehenengoetarikoa

Abadiñokoa Bizkaian sorturiko lehenengoetariko bat izan zen. Calvoren ikerketen arabera, Bizkaian mota honetako hamar bat egoitza egon ziren. Besteak beste, Bilbon, Sodupen, Mungian eta Urduñan. Argitu barik dago erregimen frankistak zergaitik aukeratu zuen Abadiño era honetako egoitza bat kokatzeko. "Dakiguna da hau egoitza izan baino lehenago etxea izan zela. Jabeari etxea hartu eta okupatu egin zioten, gero erregimenak bere zerbitzurako erabili zezan. Etxeko andreak auzitara eraman zuen kontua eta makina bat epaiketa izan zuen jauregia berriro ere berreskuratzeko. Arra-zoia lasterrera eman zioten arren, Auxilio Socialek argudiatu zuen ez zuela umeak lekualdatzeko

beste lekurik, eta, horrenbestez, beharrian hori zegoen bitartean egoitzan egongo zirela. Azkenean, familiak etxea berreskuratzea lortu zuen", argitu zuen Calvok.

Aldi berean, 65 bat ume

Barnetegian zenbat ume egon zen zehaztuta ez dagoen arren, aldi berean 65 bat ume egoten ziren. Auxilio Socialen esanetan, ume abandonatuak ziren. Erregimen frankistaren diskurtsoaren arabera, "gorriek eta separatistek abandonaturiko umeak", Calvok azaldu zuenez. "Beste egoitza batzuetan ikerturikoa-gaitik dakigunez, umeetariko batzuk gerrako umeak izan ziren. Hori batetik. Bestetik, preso politikoen eta preso sozialen seme-alabak zeuden. Azkenik, profil nagusia dago, gerraosteko miseriari loturiko umeena", gaineratu zuen.

Ikerketa amaitzean, herri memoriari loturiko zeoer aterako dute. Honela azaldu zuen Calvok: "Badugu zer hausnartu. Ez dakit instituzioetatik, ez dakit herri-tik, baina hor memoriari loturiko zeozer egin behar dugu".

"KANTU-JOLASEN BITARTEZ, ERREGIMENARI LOTURIKO BALIOETAN HEZTEN ZITUZTEN"

Babeseko 520 etxebizitza eraikiko dituzte Durangon

Udalak lehenengo Etxebizitza Tasatuen Ordenantza onartu zuen, behin-behinean

Herririk herri DURANGO

Datozen urteetan, babes ofizialeko 520 etxebizitza eraikiko dituzte Durangon. 330 alokairu sozialekoak izango dira, eta 190 prezio mugatuko etxeak. Udalak Etxebizitza Tasatuen Ordenantza onartu zuen uztailean, behin-behinean.

Jose Luis Mendilibarrek herrikideen omenaldia jaso du

Jaiek urtean zehar egoterik ez duen jendeagaz egoteko tarte eskaini zioten Zaldibarko futbol entrenatzaileari

Herririk herri ZALDIBAR

Jose Luis Mendilibarrek bere herrikideen omenaldia jaso zuen uztailean, Zaldibarko jaien hasieran. Futbol entranatzailea bere sorterrian izan zen eta inguruko eta gertuko epeltasunaz gozatzeko aukera izan zuen, Greziara bueltatu eta lanari berrekin aurretik. Herriarrei, Zaldia Kirol Elkarteari eta udalari bere esker ona adierazi zien. "Jende askok jarraitzen du egiten dugun lana, itxaropen moduko batez gainera, eta orain errekonozimen-

du hori eskertzea dagokigu", adierazi zuen.

Herriko jaiek hurbilekoa den jende askogaz egoteko aukera eskaini zioten. "Momentutxo batez bada ere, futbola eta lana ahaztu, eta zeozoer hartzen dut neure inguruko jendeagaz. Edozelan ere, ez pentsa, jaietan ez dut gauza handirik egiten. Jaiak jendeagaz egoteko aprobetxatzen ditut. Adibidez, pilota partiduak badaude, frontoira joatea gus-tatzen zait. Kuadrillagaz egoteko ere aprobetxatzen ditut jaiak", adierazi zuen Mendilibarrek.



Jose Luis Mendilibar.



Arantza Cilaurren.

"Herri txikietako dendek herrikoen bizimodua erraztu behar dute"

Mañariko Denda zabaldu zuten berriro, uztailean. Arantza Cilaurrenek "ilusio handiz" heldu zion erronkari

Herririk herri MAÑARIA

Mañariko Denda zabaldu zuten berriro, uztailean. Durangon bizi den Arantza Cilaurren galdakoztarrek hartu zuen negozioaren ardura, sasoi bateko Rafa Harategia eredu legez hartuta. Cilaurrenek "ilusio handiz"

heldu zion erronka berriari. Beharrian handiko produktuak saltzea izan du helburu, "gertuko ekoizleak lehenetsita". Cilaurrek elkarriketan gaineratu zuenez, "herri txikietako dendek herriarren bizimodua erraztu behar dute".

El Jueves aldizkaritik Zornotzako jaietara

Igor Fernandez El Jueves aldizkariako zuzendariak diseinatu du aurtengo Santanatzu eta Karmenetako kartela. Zornotzarrak ibilbide luzea darama komikigintzan

Herririk herri ZORNOTZA

El Jueves aldizkaria erreferente da umore satirikoa lantzen. Ganberroa batzuetan, garratza besteetan, ez da irakurlea epel uzten duen horietarikoa. Igor Fernandez Fernandez (Zornotza, 1983) proiektu horren zuzendaria da, eta, aurtun, herriko jaietako kartela diseinatzeko arduraz izan du. Bere ikutu propioa eman dio aurtengo Santanatzu eta Karmenetako kartelari. ANBOTOri azaldu dionez, "eskuindarrek eta ultraeskuindarrek daramate okerrean euren buruz umorea egitea". Bestalde, aldizkarian egindako lanari buruz galdetuta, adierazi zuen "aktualitatea komikiaren lengoaiara transkribatzea" dela euren lana.



Igor Fernandez, Zornotzako jaietarako egindako kartelaren ondoan.

Abadiñoko adinekoen egoitza "bide onetik" doala dio udalak

Elixabete Etxanobe ahaldun nagusia Abadiñoko eta Durangoko alkateekin batu zen uztailean

Herririk herri ABADIÑO

Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahaldun nagusia Abadiñoko eta Durangoko udal ordezkariekin batu zen uztailean, Bizkaiko hainbat eskualdetan

egin zuen bilera sortaren barruan. Abadiñoren kasuan, Aldundiak eta udalak udalerrian eraikiko den adinekoen egoitza izan zuten hizpide. Erakunde bien arteko elkar-

lana "bide onetik" doala adierazi zuen udalak, eta gaineratu zuen adinekoen egoitza "2026-2027. urteetarako egotea" espero duela.

Etxanobek eta Durangoko udaleko ordezkariak hainbat gai jorratu zuten eskualdeko herriarren bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Irisgarritasuna, mugikortasuna eta ingurumena batetik, eta eskualdean gauzatuko diren foru-eskumeneko hainbat proiektu bestetik.



Bizkaiko ahaldun nagusia Abadiñoko udal ordezkariekin.

Otxandio Biziguraz Betie.

Alkarregaz aurrera goaz!

www.otxandio.eus



Ume sahararrak.



Arabara, Bizkaira eta Gipuzkoara etorritako beste umeekin elkartu ziren Bilbon.



Errefuxiatuen kanpalekueetatik etorritako 16 umeek Olazarren pasatu dute uda.

30 ume sahararrek uda Durangaldean pasatu dute

Lajwad, Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarteen babespean etorritako ume sahararrak indarra hartuta bueltatu ziren Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuekara

Herririk herri DURANGALDEA

Uda Durangaldeko etxe eta aterpetxeetan igaro duten 30 ume sahararrak abuztu amaieran bueltatu ziren Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuekara. Indarra hartuta eta 'laster arte'ategaz agurtu ziren. Lajwad, Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarteen bitartekaritzari eskerrak pasatu zuten uda eskualdean.

Zaldibarko Olazar aterpetxean hamasei neska-mutikok hartu zuten aterpe, eta ANBOTO bertan izan zen hemen igaro zituzten azken orduetan.

Izaro Etxebarriak azaldu zuen oso ondo joan zela egonaldia. Bera da, Garazi ahizpagaz batera, Hamadako Izarrak elkartearen arduradunetarikoa bat. Ahizpa biek azaldu zuten, umeek

onura nagusi bi dituzte aurtengoaren moduko egonaldiekin. "Onuretariko bat osasunari lo-

"UMEAK GATAZKAREN ENBAXADORE DIRA, HAN LURRALDE BAT DAGOELA EKARTZEN DIGUTE AKORDURA"

turikoa da. Medikarenera eramaten ditugu, dentistarenera. Ume guztiei egiten dizkiegu probak. Zeozer txarto badago, konpondu egiten dugu. Eta, bestetik, elikadura dago. Etor-tzen direnetik joaten direnera arte, hazi egiten dira. Pisua irabazi eta indartu egiten dira", esan zuen Izaro Etxebarriak. Gainera, ikasketa kulturalak ere eurengean dituzte. "Zaldibarko herritar askoren lagun egin dira eta asko ikasi dute eurekin", gaineratu zuen. Bestalde, Garazi Etxebarriak gogoratu zuen ume sahararrak hango gatazkaren enbaxadore direla: "Handik irten eta hona etortzean, han gatazkan dagoen lurralde bat dagoela gogorarazten digute. Oroimen hori bizirik mantentzen jarraitu behar dugu, ez dadin ahaztu".



Milena Smit eta Hovik Keuchkerian.

'The Platform': bigarrena iragarri zuten urrirako

Kultura ABADIÑO

Ia hiru urteko itxaronaldiaren ondoren, Galder Gaztelu-Urrutia zine zuzendari abadiñarraren 'The Platform' pelikula arrakastuaren jarraipenaren estreinaldia iragarri zuten. Netflix streaming plataformak estreinatu zuen.



Bidebarrietako aparkalekua.

Bidebarrietako aparkalekua zabaldu dute lurretan

Herririk herri IURRETA

Iurretako Bidebarrieta kaleko aparkaleku berria zabaldu zuten uztailan, egoiliarrentzako 94 lekugaz, horietarikoa hiru egoituak. Aparkalekua Bidebarrieta kalea berrurbanizatzeko lanekin dago lotuta.



Aitor Garate.

"Mitxelin izarra lortzea dut etorkizuneko erronka"

Aitor Garate sukaldariak (Izurtza,1994) bistro erako jatetxea du Miami Beach-en (AEB)

Herririk herri IZURTZA Bost urte dira Aitor Garate Miami (AEB) joan zela, Izurtza utzita. Mikel Goikolea sukaldari otxandiarraz batera Leku proiektua ipini zuen martxan. Urte eta erdi egin zuten elkarregaz, 2021ean bakoitzak bere bidea hartu zuen arte. Gaur egun, Garatek bistro erako jatetxea du Miami Beach-en: Edan. Eta datorren urtera begira Lur jatetxe berria zabaldu gura du bestearen ondoan. Ondo koiznatzeko, maitasunez aritzea ezinbestekoa dela uste du izurtzarrek. "Mitxelin izarra lortzea dut etorkizuneko erronka", aitortu zuen sukaldariak.

Jon Irazabal historialariari agur hunkigarria egin zioten Iurretan

Jon Irazabal 63 urte gaz hil zen, abuztuaren 22an; Gerediaga Elkarteari lotuta igaro zuen bere bizitza osoa



Abuztuaren 23an egin zuten agur ekitaldia. GEREDIAGA ELKARTEA

Herririk herri IURRETA Jon Irazabal historialaria (Iurreta, 1960) hil zen abuztuan. 17 urte zituela Gerediaga Elkartean hasi zen beharrean, eta ordutik elkartea eta bera ez ziren banatu. Historia teknikari lanetan ibili eta gero, 1982tik 2018ra elkarteko kudeatzailea izan zen; hiru hamarkadaz Durangoko Azokako zuzendaria ere izan zen. Gerediagak bere lana nabarmendu zuen: "Ekina eta borrokalaria izan da aldi berean. Bere ekiteari eskerrak, Durangaldeak asko daki eskualdearen historiaz. Galduriko ohitura asko berreskuratzeko lan egin du, eskualdeko historian paper garrantzitsua izan duten pertsonen izena ipini die, gerra zibilean gertaturikoa azaleratu du eta Durangerriaren jatorriaren zabalkunde jardun du".

Iurretan baso lanetan zebilen langile bat hil dela salatu dute

Euskal Herrian aurten lan istripuz hildako 36. behargina dela salatu zuen LAB sindikatuak

Herririk herri ZORNOTZA Iurretan baso lanetan zebilen langile bat hil zela salatu zuen LABek, Euskal Herrian lan istripuz hildako 36.a. Sektoreko lan baldintza "geroago eta eskasagoak" salatu zituzten, eta langilearen senide eta hurbilekoei elkartasuna agertu zieten.

Elorriar bi Pakistanen eskalada bide berria zabaldu duen espedizioan

Eskaladan gutxi esploratutako mendilerro batean, 7-B zailtasun mailako bide berri bat zabaldu zuten

Kirola ELORRIO Erdialdeko Asiako Karakorum mendi sistemak hamaika aukera eskaintzen du eskaladarako, bost herrialdetan banaturiko 500 kilometrotan. Ikusmena heltzen den arteko tontor amaigabeen artean, lau euskaldunek eskaladarako bide berri bat zabaldu zuten abuztuan: Markel eta Oier de la Fuente anaia elorriarrak, Josu Linaza igorreetarrak eta Ekaitz Maiz etxauriarrak. 'Izar gorri, mamuon betiko argi'; izen horregaz bataiatu zuten 1.140 metroko bide berria. 7-B zailta-

sun du arroko graduak, eta M-4 pioleteko graduak. Laurek esperientzia handia dute eskaladan. Esaterako, Markel de la Fuente Yosemite eta Jay Sierra (AEB) inguruko horma ezagunetan eskalatzen aritu zen iaz, eta orduan bururatu zitzaizkien Pakistaneko abenturaren ideia. Pakistaneko esperientzia "berezia" izan zen, Markel de la Fuenteren esanetan. "Lehenengo aldia nuen horrelako espedizio batean eta hain pareta handian bidea zabalitzen", esan zuen. Hiru egun behar izan zituzten igo eta jaisteko.



Ekaitz Maiz, Josu Linaza, Oier de la Fuente eta Markel de la Fuente.



Baserrria zure eskuetan





www.bizkaiaesnea.com

Ainhize Belarrek historia egin du 9a+ eskalatuta

Ainhize Belarrek (Atxondo, 2006) historia egin du Baltzolan (Dima, Bizkaia) 'Iñi Ameriketan' 9a+ graduako bidea eskalatuta; zailtasun maila horretako bide bat igotzen duen bigarren emakume euskalduna da Belar, Josune Bereziarturen ondoren



Ainhize Belar 'Iñi Ameriketan' bidea igotzen. HYPERAITZ

Kirola ATXONDO

Itzela egin du Ainhize Belar eskalatzaile atxondarrak, gailurrera heldu da. Izan ere, irailean 9a+ graduako 'Iñi Ameriketan' bidea igo du Baltzolan (Dima, Bizkaia), eta marka berri bat

ezarri du: bide hori kateatzen bigarren emakumea izan da. Belarren aurreko marka 9a mailako igoera bat zen, iazko maiatzean Etxaurin (Nafarroa) lorturikoa. 'Iñi Ameriketan' aspal-ditik buruan zuen bidea zen.

Otsailean probatu zuen lehenengoz. Apirilerako "puntu-puntuan" zuen igoera, baina eguraldiak ez zuen lagundu. Maiatzean eta ekainean, behin betiko saiakera egiteko prest zegoela, busti aurkitu zuen bidea. Beraz, uda os-

tera arte itxaron behar izan du. "Oso pozik" dago lorpenagaz, baina oraindino guztiz barneratu barik zuela berba egin zuen ANBOTOGaz. "Oraindino ez dut sinesten. Asimilatzen nago", adierazi zuen.

Aurrera begira, arrokan "topera" jarraitzeko asmoagaz jarraituko zuela azaldu zuen gero. Txapelketak baztertu barik, arrokei emango die "lehentasuna". Katalunian mundu mailan ezagunak diren bide batzuk ditu orain jomugan. 14 urteagaz, Belarrek 8c graduako bidea egin zuen; 17gaz, 9a mailako bidea, eta horrela, estatuan 9a egindako emakumeen zerrendan ere sartu zen. 8c graduako bidea inflexio puntua izan zen berarentzat, eta Etxauriko 9a graduako bidea egitean ere "nabarmentzeko" moduko momentu bat izango zela adierazi arren, horrelako gehiago egotea espero zuen eskalatzaile atxondarrak.

Euskadiko txapelketa

Bestalde, maiatzean, Belarrek Euskadiko Zailtasun Txapelketa irabazi zuen; Derioko (Bizkaia) Biwak Climbing-en instalazioetan jokatu zuten lehiaketa. Txapelketa Open formatu barruan zegoenez, oso parte hartze nabarmena izan zen, eta beste erkidego batzuetako eskalatzaileak ere bertan izan ziren eskalatzen. Finalak oso lehiatuak izan ziren, eta, emakumeen kasuan, Ruth Monsech katalanaren eta Ainhize Belar atxondarraren arteko lehia ikusgarria izan zen, esaterako. Azkenean, Belar Euskadiko txapeldun geratu zen maila absolutuan. Txapelketa berean, 16 urtez azpiko mailan, Lier Perez elorriarra txapeldunorde geratu zuen.



Kepa Astorkia eta Jon Urbiet.

Berriztar bik Transiberica proba ultra osatu dute

Kirola BERRIZ

Jon Urbiet eta Kepa Astorkia berriztarrek beste balentria bat egin dute bizikletan, orain arteko gogorrena. Transiberica ultracycling egin dute: 2.800 km bederatzi etapatan, 36.000 metroko desnibel positiboa gaindituta.



Ricardo Mar Medina.

Melilla Urrezko Ligara itzultzeko helburuaren aldeko borrokan

Mikel Garitaonandia Melilla taldea entrenatzen dabil, Zilar Mailako talderik boteretsuenetarikoa

Kirola DURANGO

Gatx da Mikel Garitaonandia (Durango, 1984) Zornotza ST ez den beste klub batean imajinatzea, hamalau urte eman dituelako elastiko berdea defendatzen, baina orain Melilla taldeko entrena-

tzailea da. Melilla Zilarrezko Ligako talderik boteretsuenetarikoa da eta Urrezko Ligara bueltatzea du jomuga. "Proiektuak eta profesionaltasunak kokalekuak baino pisu gehiago izan dute nire erabakian", esan zuen.



Mikel Garitaonandia.

Andra Mariko elizpea ikertzeko amesten

Herririk herri DURANGO

Ricardo Mar Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateko arkeologia irakaslea da, eta munduko hainbat bazterretan egin ditu arkeologia ikerketak; ez du bazterretan Durangon ere ikerketa arkeologiko bat lantzea.



Ibon Pujana.

Ibon Pujana durangarrak Tor des Geants proba amaitu du

Sei egunez, Ibon Pujana durangarrak bere gaitasuna muturrera eraman du Tor des Geants proba gogorrean

Kirola DURANGO
Ibon Pujana Iturbe durangarrak birritan egin du Ehunmilak lasterketa (171 km), eta behin Kangas Mountain traila (60 km), Europako Tontorrak traila (70 km), Gran Canaria ultra traila

(126 km) eta Mont Blancoko ultra traila (170 km). Tor de Geants, baina, bere erronkarik gogorre-na izan da: sei egunean osatu ditu probako 350 kilometroak, 30.000 metroko desnibel positiboa gaindituta. "Niretzat abentura

bat izan da lasterketa bat baino gehiago. Hainbeste kilometroan gauza asko gertatu daiteke, eta, egia esanda, horrela gertatu da", azaldu zuen.
Behin proba amaituta, durangarra pozik agertu zen. "Tor des Geants abentura gogorra da eta dena eskatzen dizu, barruan duzun guzti-guztia, baina ordainetan dena ematen dizu. Oso bizi-pen bereziak eskaintzen dizkizu", esan zuen. Proban, Andaluziako, Kataluniako eta Ondarroako lagun banagaz batu zen.



Itsasne Blanco.

Aitana abeslariagaz biran egon da Laura Gogeaskoetxea

Martxotik eta abuztura bitartean Aitanagaz biran egon zen Laura Gogeaskoetxea dantzari durangarra

Kultura DURANGO
Urte gogorra izan arren, pozik dago Laura Gogeaskoetxea dantzari durangarra bizitzaren momentuagaz. Aitana abeslari entzutetsuagaz biran aritu da aurren, martxotik abuztura

bitartean, musika jaialdi eta ikuskizun propioetan. 2025eko ekainean emanaldi bi egingo dituzte Madrilgo Santiago Bernabeu zelaian (abenduan ziren egitekoak), eta eguneko 65.000 lagun batuko dituzte.



Laura Gogeaskoetxea.

"Buruan emaitza dugu eta gozatzea ahazten dugu"

Kirola ATXONDO
Geroago eta preziatuagoak dira kirol psikologoak. Itsasne Blanco (Atxondo, 1999) kirolariei esaten die sarritan euren emozioak kudeatzeko dituzten mugak antsietatearen atarikoak izan daitezkeela.



Herriarekin eta herriarentzako lanean jarraituko dugu





Durangaldeko manifestazio jendetsua egin zuten Berrizen.

Osasungintza publikoaren defentsan

Durangaldean dozenaka mobilizazio egin dituzte osasungintza publikoaren alde eta Osakidetza defentsan, eta horietariko jendetsuenak Berrizen egin dira; hiru mediku dagozkie, eta, helburua lortuta, bertan behera utzi zituzten mobilizazioak

Herririk herri BERRIZ

Helburua lortuta, "pozik baina erne", Berrizko Pentsiodunen Mugimenduak bertan behera utzi zituen hainbat astez egindako mobilizazioak. Maiatzaren 24tik aurrera, hiru mediku izatetik bakarra izatera pasatu

ziren Berrizen, eta "larritasunak" zituztenak bakarrik artatzen hasi ziren Berrizko anbulatorioan. Ordutik hainbat mobilizazio egin zuten, eta 1.000 sinadura ere batu zituzten, Osakidetza eta Arartekoan aurkezteko. Irailean, Berrizen Duran-

galde mailako manifestazio jendetsua egin zuten, Pentsiodun Mugimenduko kideek deituta eta hainbat eragilek babestuta, eta ehunka lagun batu ziren bertan. Asteetako presio horren ondoren, urrian hiru mediku hasi ziren berriro lanean Be-

rrizko anbulatorioan, eta horietariko bat %80ko lan jardunaldiko kontratuagaz bazen ere, egoera onartu eta mobilizazioak bertan behera uztea erabaki zuen Berrizko Pentsiodunen Mugimenduak. "Osakidetza defentsan, bost egunetik lautan hiru mediku egongo dira, eta orain egun bererako edo egun batetik bestera ematen dizute hitzordua", arrazoitu zuten erabakia. Berrizko kasuan, Garain medikurik barik geratzea ere salatu zuten.

Azken mobilizazio batean, berriarrak eta osasun zentroko langileak txalotu zituzten, "osasun publikoaren defentsa nekaezina egiteagaitik eta baldintza gogorretan lan egiteagaitik".

Eskualdean ere mobilizazioak

Berrizen ez ezik, Durangaldeko beste hainbat herritan ere egin dituzte mobilizazioak azken urtean. Abadiñon, Elorrión eta Zaldibarren, hiru kasu aipatzearren, hainbat egunetan ikusi dira herritarrek eta pentsiodunak osasungintza publiko baten alde. Mobilizaziorik gehientsuenetan honelako adierazpenak entzun izan dira: "Osakidetza-rena, orokorrean, eta lehen arretaren egoera ez da gertaera puntual bat; azken hamarkada bietan egindako murrizketen emaitza da, eta kudeaketa eredu zehatz baten ondorio ere bai".

Adibidez, Durangon, urrian manifestazio jendetsua egin zuten DOPA Durango Osasungintza Publikoaren Alde. Hor ere Osakidetza defentsan "okerre-egiten jarraitzen" duela salatu zuten. "Ez dituzte erretiroak, lekualdatzeak, bajak eta oporrak betetzen, eta, ondorioz, zerbitzuak galdu egiten dira edo zerbitzua kaltetu egiten due".

Zabalarrako sukaldeko eta jantokiko lanak, martxan

Ikasturte berriagaz hainbat aldaketa egingo dute Durangoko Zabalarra eskolan

Herririk herri DURANGO

Irailean sukalde eta jangela berriak egiten hasi dira Durangoko Zabalarra ikastetxean. Aurreikuspenen arabera, datorren urteko uda amaierarako amaituko dituzte lanak. Bien bitartean, eraikinaren ondoan ipinitako moduluetan bazkalduko dute.

Durango barruan autoan egindako joan-etorriak, erdira

Oinez eta bizikletan egindako desplazamenduek goranzko joera dute

Herririk herri DURANGO

Durango barruan egiten diren batetik besterako joan-etorriek jasangarritasunerako joera erakusten dutela ondorioztatu du Durangoko Udalak. 2003an, herri barruko joan-etorrien %46 autoan egiten ziren, eta orain %20ra jaitsi da datua.

ANBOTOk Azkorbebeita eta Sarrionandia batu ditu Mañarian

Oihana Azkorbebeitak eta Irene Sarrionandiak Trail Valle de Tenako proban parte hartu zuten irailean

Kirola ABADIÑO/ZORNOTZA

Irene Sarrionandia zornotzarrak estuasun handia igaro zuen Trail Valle de Tenako Garmu Negro mendian gora, hipotermiak jota. Han zebiltzan mendizale, korrikalari eta antola-

kuntzakoek lagundu eta gero, erreakzionatzen hasi zen, eta azkenerako umorea ere berreskuratu zuela nabarmendu zuen. Oihana Azkorbebeitiak ere parte hartu zuen proba berean; 2011n bero kolpe baten ondorioz

antzeko egoera bat bizi izan zuela gogoratu zuen abadiñarrak.

Irailean Mañaritik Atxetara mendi lasterketan parte hartu zuten biek, Euskal Herriko probarik gogorrenetarikoan. "Ibilbide ederra da, baina gogorra, teknikoa, eta astiro egitekoa da", azaldu zuen Sarrionandiak. Gainera, zornotzarra gogotsu zegoen, ibilbidetik oso gertu dagoen Intxalde (Intxaurralde) baserrikoa zelako euren ama.



Irene Sarrionandia eta Oihana Azkorbebeita.

Arrazolatik Andastora, beteranoak irabazle

Arrazolatik Andastora lehenago nor heldu apustu egin zuten bost arrazolarrek irailean; beteranoak ailegatu ziren lehenengo, baina denek irabazi zuten

Herririk herri ATXONDO

Santixako jaietan sortu zen Arrazolatik Andastora nor lehenago heldu apustua, bazkari baten bueltan. Ibai Buruaga, Gari Leturiaga eta Oies Gorostiza arrazolarrek ordubete igoko zirela uste zuten, baina denak ez zeuden konbentzituta. Handik astebetera, beste arrazolar bi batu ziren apustura, biak gazteagoak: Iraitz Arkarazo eta Egoitz Axpe. Apustuari intriga emateko, gazteagoak geroago irtengo ziren: Arkarazo 20 minutu geroago, eta Axpe, denetan gazteena, 25 minutu geroago.

Beteranoek dena eman zuten apustua irabazteko, eta 47tik 52 minutura bitartean heldu ziren hirurak Andasto gainera. Handik



Oies Gorostiza, Iraitz Arkarazo, Gari Leturiaga, Egoitz Axpe eta Ibai Buruaga.

gutxira heldu zen Axpe, 29 minutuko igoera eginda, eta Arkarazo ere lasterrera batu zitzairen. Apustuak ikusmina piztu zuen eta 30 bat lagun batu ziren mendi gainean apustulariak animatzeko. Ondoren, denek hamarretakoa egin zuten: pernila, gazta, tortilla eta abar. Esperientzia "zoragarria" izan zela nabarmendu zuen Buruagak, eta bertan sorturiko giroa azpimarratu zuen. Eguerdian elkarregaz bazkaldu zuten, Erlaunpe soziedadean.

takoa egin zuten: pernila, gazta, tortilla eta abar. Esperientzia "zoragarria" izan zela nabarmendu zuen Buruagak, eta bertan sorturiko giroa azpimarratu zuen. Eguerdian elkarregaz bazkaldu zuten, Erlaunpe soziedadean.

Izan Inurri taldeko kideak Isiotu kultur elkartean

Taldeak bost urte daramatza minbizia duten herritarrei laguntzen eta haiei babes ematen

Erreportajea ABADIÑO

"Badirudi gizarteak bizkarra eman gura diola sufrimendua darion guztiari, ezkorra den guztiari. Baina uste dut minbiziari aurrez aurre begiratzen ikasi behar dugula, hori ere bizitzaren zati delako", azaldu zuen Olatz Mercader zarautzarrak. Mercader "inurrietariko bat" da. Eta irailean Abadiñon egon zen, beste hainbat kidegatz batera, gaixotasunak inposaturiko isiltasuna eta tabua apurtzen. Izan ere, elkarteko kideen iritziz "behar-beharrezkoa da minbiziaren gainean eraikita dagoen errelatoa aldatzea".

Pediatría zerbitzuaren aldeko mobilizazioak

la urtebetez arazoak izan eta gero, pediatría zerbitzua ematen dabilta berriro Traña-Matienan

Herririk herri ABADIÑO

Joan zen urte amaieratik, Traña-Matienan arazoak izan dituzte pediatría zerbitzuagaz; baina zerbitzuaren hutsunea konpontzen hasi ziren urrian. Izan ere, Abadiñoko Udalaren esanetan pediatría zerbitzua berreskuratu zuen urrian. Ordura arte, Osakidetzak Zelaietako zentrori bidaltzen zituen Otik 6 urtera bitarteko umeak, eta Zaldibarrera edo Elorriora 7tik 14 urtera bitartekoak. Herritarrek hainbat protesta egin dute eta udalak behin baino gehiagotan deitu du mobilizazioetara.



Bizkaiko emakume sortzaileen omenez

Kristina Mardarasek hainbat omenaldi jaso du aurten; besteak beste, Bizkaiko Emakume Sortzaileen Topaketan saritu zuten, eta baita lurreta jaioterrian ere; lanean jarraitzen du, eta hitanoa bultzatzeko proiektu batean ere badago murgilduta

Kultura IURRETA

Bide urratzailea eta militante nekaezina da Kristina Mardaras (Iurreta, 1948). Bertsolaritzan lehenengo emakumea izan zen txapelketetako oholtzara igotzen, eta horrez gainera beste hainbat proiektutan ere parte hartu du kulturgintzan zein euskalgintzan. Ibilbide oparoa aitortzeko, hainbat sari jaso du aurten. Besteak beste, Bizkaiko Emakume Sortzaileen Topaketan saritu zuten; Bilboko Euskalduna Jauregian egindako ekitaldian, iurretarrak bertsotan eskertu zuen saria. "Bizi guztian ibili naiz herrigintzan, beti izan naiz ekintzailea. Konstante bat da nire bizitzan.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

Baina ez naiz sekula bakarrik ibili, talde lana izan da beti. Nire moduan, beste askok mezezi dute horrelako merezimen du bat. Horregaitik, kosta egin zitzaidan saria onartzea. Hala ere, oso pozik hartu dut egin didaten aitortza. Ekitaldia gozamina izan zen eta oso pozik nago, ez ni aukeratu nautelako, antolaturiko ekitaldiagaitik baino", aitortu zuen urrian eginiko elkarrizketan. Aurrera begira, modu beretsuan jarraituko duela iragarri zuen. "Osasuna dudan artean jarraituko dut. Zainetan daramadan odola lakoxea da niretzat euskara, ni neu izateko beharrezkoa dudana hizkuntza", gaineratu zuen. Orain, adibidez, hitanoari buruzko proiektu batean murgilduta dago.

HITANOIA SUSTATZEKO HELBURUA DUEN PROIEKTU BATEAN BURU-BELARRI DABIL MARDARAS



Urrijena. TXEBI ARRIAGA

Dantza saio erraldoi bat baino askoz gehiago

Herririk herri IURRETA

Bost urterik behin, iurretarrak hitzordu garrantzitsua izaten dute; izan ere, herriko dantzariak Urrijenan batzen dira. Aurten go edizioan ere, zahar eta gazte, jendetza batu zen.



Herminia Lazpita.

Herminia Lazpitak Arimaren Gauaren lekukotza eskaini zuen

Halloween gure artera ailegatu baino lehenago, Euskal Herrian Arimen Gauaren lekuko bizia da Lazpita

Herririk herri BERRIZ

Herminia Lazpita berriztarra 1935ean jaio zen, Hormastegi baserrian. Halloween eta Ameriketako Estatu Batuetako ohiturak gure artera ailegatu baino lehenago, Euskal Herrian

ospatzen zen Arimaren Gauaren lekuko bizia da. Maria Kristina Aldekoa amamaren ahotik jaso zuen kalabazak hustu eta kandlekin argiztatzeko aspaldiko ohitura, etxean bertan. Gerora, praktikara ere

eraman zuen, kalabaza argiztatua elizako kanpandorrean herriar guztiek ikusteko moduan ipinita. Honela eman zuen Lazpitak bere testigantza: "Etxeetan ere ipintzen ziren inoiz kalabazak, baina nik Berrizko elizako kanpandorrera igo ginenekoa dut akorduan batez ere. Ohitura bat zen, lehenagokoek esandakoa. Gure amamak esaten zigun "Arimen Gauean, lehen, ba haxe eta haxe egiten zen", eta guk, ba, egin.

Inder enpresan orain 50 urte egindako greba oroitu dute

Berrizko Inder enpresan eginiko grebatik 50 urte pasatu direla baliatuta, bertan bizitakoak gogoratu dituzte

Herririk herri BERRIZ

Inder enpresako borroka sindikalak hainbat ikasgai eta lorpen egiteko balio izan zuen, baina momentu gogorrak ere bizi izan zituztela azaldu zuen Matias Oregik. "Errepresioa,

engainua eta xantaia erabili zituzten langileen kontra, eta banakako mezuak ere bidali zizketen grebalariei, era mehatagarrian, lanuztea bertan behera uzteko eskatzeko. Horrez gainera, enpresak Avilako eta

Zaragozako beharginak kontratatu zituen greban zeudenak ordezkatzeko", gogoratu du Oregik. Guardia Zibilak egindako atxiloketak ere gogoratu zituen.

Inder enpresan egindako grebak 40 egun iraun zuen, eta hainbat izan ziren berriztarrek langileei egindako keinu solidarioak; greba orokorrera ere deitu zuten, eta herriko dendari eta enpresa ugarik ateak itxi zituztela gogoratu zuen Oregik.



Matias Oregi, Inder enpresa zenaren parean.

AURRERA EGITEKO GRINA



50 URTEZ AURRERA
AÑOS AVANZANDO 

 **sukia**

sukia.com | 943 316 868



"Pelikula zine aretoetara heltzen den une hori berezia da niretzat"

Lanez lepo, baina ilusioz beterik heldu da urte amaierara Ander Sagardoy ekoizle durangarra; ez da ohikoena urtean hiru film luze ('Marco', 'Azken erromantikoak' eta 'Nina') estreinatzea —lau lan 'Cristobal Balenciaga' telesaila kontuan hartuta—; Sagardoy Veneziako Zinema jaialdian eta Donostiako Zinemaldian ere egon da, besteak beste

Kultura DURANGO

Ander Sagardoy ekoizle durangarra hiru pelikula besapean zituela aurkeztu zen Donostiako Zinemaldian irailean. "Pelikula bakarragaz bada ere, Donostian egotea ona da; urte amaieran lana pilatuko zaizula adierazten du, baina seinale ona da. Nahiko Zinemaldi potentea izan dut, egia esanda", azaldu zuen ANBOTOri eskainitako elkarrizketan. Baina alfonbra gorriaren glamourraz gainera, Zinemaldiak lan handia ematen dio. "Alfonbra gorriarena anekdotikoa da ia. Bertako argazkiak mundu osoan ikusten dira, baina horrelako jaialdiek lan handia eskatzen diote ekoizleari. Oraindino gehiago, Donostiaren kasuan. Jaialdi egonkortua izatera, industriako zati handi bat batzen da bertan, estatukoa zein nazioartekoa. Lanik handiena agenda koadratzeak ematen du", argitu zuen.

Zinemaldia amaituta, *Marco* eta *Azken erromantikoak* filmak



Ander Sagardoy. DANI BLANCO / ARGIA

areto komertzialetan estreinatu zituzten, azaroan. "Garai polita da hori, pelikula normalizatzeko duelako. Hain zuzen ere, *Marco* pelikularen aurrestreinaldi saioetako bat Durangoko Zugaza zi-

neman egin zuten, eta Sagardoyk bertan parte hartu zuen. "Durangoko aurrestreinaldiak ilusio berezia egiten dit, Zugazan bertan aurkeztu dudaren lehenengo filma izango delako. Berezia

izango da, baita ere, pelikula berezia delako. Veneziatik eta Donostiako jaialdietatik heltzen den pelikula bat da Moriarti ekoiztetxeko lagunak zuzendu dutena. Zuzendarien buruan

hogei urtez egon den ideia bat izan da hau, eta, beraz, aurkeztu saio horietariko bat Durangon egiteak pelikulari testuingurua ematen laguntzen du", nabarmendu zuen. Euskarazko zinemas ere hausnartu zuen Sagardoyk: "Aurten pelikula bakarra estreinatu da euskaraz, eta areotan hura babestea komeni da".

Ekoizle durangarrak bestelako proiektuekin uztartzen du Irusoin ekoiztetxeko lana. Adibiderik interesgarrienetariko bat Eneko anaiagaz batera martxan ipini zuen Sumendi filmak ekoiztetxea da. Iaz *Betiko gaua* film laburra estreinatu zuten, eta aurten hainbat jaialditan aurkeztu dute. Abenduan, Goya sarietarako hautagaiak izango diren ezagutuko dute; izan ere, hautagai izendatu ditzaketen 30 laburren hautaketa taldean daude. Horrez gainera, "ilusio berezia" egiten dio anaiagaz lan egiteak. "Oso erraza izan da beragaz lan egitea. Berak konfiantza osoa izan du nigan ekoizle legez, eta nik ez dut bere lana zalantzan ipini. Zuzetzen duen lehenengo lana izan da, baina urteak daramatza sektorean, eta hori igarri egiten da".

SAGARDOY VENEZIAKO ETA DONOSTIAKO ZINEMA JAIALDIETAN EGON DA, 'MARCO' PELIKULAGAZ

Hizkuntza gutxituen aldeko aktibistak Durangaldean

Munduko hizkuntza gutxituetako 18 aktibista Euskal Herrian izan dira euskara bertatik bertara ezagutzeko



Hizkuntza aktibistak eta Garabideko kideak.

Herririk herri DURANGO

Mundu zabaleko hizkuntza gutxituetako 18 aktibista Euskal Herrian izan dira euskara biziberritzeko prozesua bertatik bertara ezagutzeko asmoagaz. Besteak beste, Durangon ere izan dira bisitan, Garabide elkarteak kideak lagun izan dituztela. Garabide 2007an hasi zen proiektu hau lantzen, munduko hizkuntza komunitateetatik heldutako eskariei heldu guran. "Zelanbait esateko, hizkuntza gutxituen biziberritze lanen erreferente legez ikusten gaituzte euskaldunak; hau da, gaur egun programa honetan parte hartzen duten komunitateak guk hemen orain 60 urte bizi genuen antzeko egoera batean murgilduta daude", azaldu zuen Endika Blanco Garabide elkarteak kide durangarrak.

Eduardo Larrea dendari ezaguna hil da

Eduardo Larrea hil eta gero, Zornotzako Billiken liburu denda mitikoak ateak itxi ditu

Herririk herri ZORNOTZA

Zornotzarren artean miresmen zein sinpatia sortzen zuten herritar horietariko bat zen Eduardo Larrea dendaria. Gutxi izango dira Eduardo eta Kontxi Larrea neba-arrebek zabaldu zuten Billiken liburu-dendan inoiz ezer erosi ez dutenak.

Durangoko Alde Zaharreko etxebizitzaren %20, hutsik

Saretzenen barruan, ANBOTOK etxebizitzaren auzia aztertu du, Tokikomegaz eta EITBgaz

Herririk herri DURANGO

Durangon, 1.400 etxebizitza baino gehiago hutsik daude; hau da, %10; Alde Zaharrean zorrotzagoa da datua, bertako bost etxebizitzatik bat hutsik dagoelako; hau da %20. Etxebizitza horien egoera eta prezioa ere aztertu dituzte, gako modura.

Oniritzia eman diote Zaldibarko Sanjoangoa kultur etxeari

Udalbatzak baiezkoa eman zion Alde Zaharreko Sanjuangoa eraikinetan kultur etxea egiteari. "Udalerrriak merezi duen programazio kulturala garatu ahal izatea" da helburua

Herririk herri ZALDIBAR

Zaldibarko udalbatzak kultur etxea egiteko proiektua onartu zuen, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren eta PSE-EEren abstentzioagaz.

Kultur etxea udalarenak diren Elexpe eta Sanjuangoa eraikinetan egingo dute, bide batez "hainbat helburu estrategiko" beteta. Udalaren berbetan, herritarrek eta eragileek "udalerrriak merezi duen programazio kulturala garatu ahal izango dute helburu horretarako ezinbestekoa den azpiegitura batean". Bestetik, kultur etxeak "Alde Zaharra biziberritzea" ekarriko du, eta, azkenik, "herritar guztiena den ondarea zaintzeko eta horri balioa emateko aukera eskainiko du". Kultur etxeak 715 metro koadroko espazio erabilgarria izango du



Sanjoangoa kultur etxearen infografia.

eta bilera gelak, ikasgela, liburutegia, auditoriuma eta erabilera anitzeko gela izango ditu barruan. Proiektua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten eta herritarrek azaroaren 15era ar-

teko epea izan zuten udalean ekarpenak egiteko. Proiektuaren aurrekontu orokorra 3.125.557,13 eurokoa da eta udalak zabalik ditu finantziak lortzeko bide guztiak.



Naia Olea eta Andrea Aginagalde.

Altxa Burua, teknologien erabilera egokia sustatzeko

Teknologia berrien erabilera egokia sustatzeko helburuagaz sortu dute Altxa Burua sarea

Herririk herri DURANGALDEA

Altxa Burua sareak pantailen erabilera osasuntsua sustatu gura du, eta helburu horregaz sortu zuen plataforma Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako guraso talde batek 2019an. Durangaldean ere, seme-alabekiko kezka, hain-

bat herritako gurasoek antolatzea erabaki dute. Erreportaje sakona ondu genuen Naia Olea eta Andrea Aginagalde Durangoko eta Eloreko kideak elkarrizketatuta; ANBOTOk Telmo Lazkano *Nerabeen garrasia* liburuaren egi-leagaz ere berba egin zuen.

IURRETAKO UDALA

Tel.: 946 201 200
www.iurreta.eus

 **Iurreta**
Eleizateko Udala



 **HAZ**

Herritarren
Arreta
Zerbitzua

Bidebarrieta, 5
(48215 - Iurreta)



ANBOTOren hainbat ale.

ANBOTOren 1.000. alea: Mila esker, irakurle!

Azaroan zehar Durangaldeko tokiko euskarazko hedabidea mugarri bitara heldu da: 23. urteurrenera eta baita 1.000. alera ere. Aitzakia horregaz ale berezia kaleratu zuen

Plateruena Musika Aterpeak 2025ean zabalduko ditu ateak

Azpiegitura hau Durangoko, Bizkaiko eta Euskadiko "erreferente musikala" izatea gura du udalak

Herririk herri DURANGO
Durangoko Udalak milioi bat euro inguruko inbertsioa egingo du Plateruena Musika Aterpeak 2025ean zabalduko ditu ateak. Horrela, Plateruena Musika Aterpea Durangoko,

Bizkaiko eta Euskadiko "erreferente musikala" izatea gura du udalak, "talentu gazteen garapen profesionala sustatzeko eta Durangoko eta Bizkaiko industria musikala indartzeko". Lanak 2025ean hasiko dituzte-

la iragarri zuten azaroan, eta udalaren asmoa 2025eko bigarren sehilkoan zabaltea dela azaldu zuten.

EH Bildu kritikoa
EH Bilduk kudeaketa pribatua izatea salatzen du. "Uste dugu proiektu anbiziotsua dela, baina kudeaketa enpresa pribatu baten esku uztea arriskutsua izan daitekeela, eta udalak euskararen eta herriko elkar-teen paper protagonista bermatu beharko lukeela".

Herririk herri DURANGALDEA

ANBOTO zenbaki borobilerara heldu zen azaroaren 15ean: 1.000. alera. Bada arrazoi nahikoa Durangaldeko hedabidearen ibilbidea errepasatu eta aurrera begirako erronkez hausnartzeko. Azaroaren 9an, ANBOTOK 23 urte egin zituen. Hamarkada bitik gorako bidean igarotakoan errepasoa egiteko, ale monogra-

fikoa kaleratu genuen. Momentu egokia izan zen egindako ibilbidea errepasatu eta erronken aurrean hausnartzeko.

Papereko aleagaz hasi ginen eta webgunea gehitu genion jarraian. Mugikorraren erabilerak eta sare sozialek unean uneko informazioa lantzerara eraman gaituzte, urteko 365 egunetan. Hau guzti hau eta etorriko direnak zuei eskerrak izango dira. Langile, banatzaile, irakurle, instituzio, sortzaile zein iragarle, mila esker denoi!

HAU GUZTI HAU ETA ETORRIKO DIRENAK ZUEI ESKERRAK IZANGO DIRA. MILA ESKER!

Ale monografiko horretan, Iduurre Maortua ANBOTOKo lehenengo kudeatzaileak hedabidearen sorrerari buruz berba egin zuen. "Gogoan dut euskalgintzan egiteko asko zegoen garaia izan zela. Borondatezko funtzionamendu batetik gentozen Eraz aldizkaritik, eta profesionalizazio baterutz gindoazen. Berbaro inguruan hasi zirenek oso presente zuten hori, egitura profesional baten beharra zegoela proiektuari oinarri sendo bat emateko, baztertu barik, jakina, borondatezko lanaren ekarpena", azaldu zuen Maortuak. Hasierako kezkak ere gogoratu zituen: "Jende baten artean ez zegoen euskaraz irakurtzeko ohitura handirik; adibidez, nagusien artean, eta apustu bat egin zen irakurterraza izango zen ANBOTO bat kalera-tzeko, eta hor, Xabier Amuriza buru, oso lan polita egin zen".

ETSk bi trenbide pasagune kendu ditu Zornotzan

Guztira, 518 milioi euro inbertitu dituzte; horietariko 9 milioi Zornotzako bi trenbide pasaguneetan

Herririk Herri ZORNOTZA
Bernabeitiako eta Eubako trenbide pasaguneak kentzeko lanak bisitatu zituzten, azaroan, Susana Garcia Chueca sailburuak, Loly de Juan Garraio Azpiegituren zuzendariak, Rafa Marca-

no ETSko Eraikuntza zuzendaria eta Ainhua Salterain Zornotzako alkateak. Euban igarobide bat ezartzeko lanetara joan ziren; lanek 750.000 euro baino gehiagoko aurrekontua izan dute.

Herritarren elkartasun ekimenak Valentziara laguntza bidaltzeko

Alaitz Sepulvedak ekimen solidario bat ipini zuen Durangoko Pitxi tabernan, eta aurreikuspenak gainditu zituen

Erreportajea DURANGALDEA

Valentzia astindu zuen honda-mendiaren aurrean, Durangaldeko herritarrek elkartasun ekimen ugari ipini zuten martxan. Janari eta bestelako produktuen bilketa guneetarikoa

bat Durangoko Pitxi tabernan ipini zuen Alaitz Sepulvedak. Aurreikuspen guztiak atoa gainditu zituzten. Zornotzan ere bilketa puntu bat ipini zuten, baturikoa Valentziara eramateko.



Alaitz Sepulveda eta Oihane Sebastian Valentziara irten aurretik.



Azokaren antolatzaileak.

"Jendea erosketak egitera dator azokara"

Herririk herri ABADIÑO

Herriko ekoizle eta artisau batzuen ekimenez, Abadiñon azoka egiten dute hileko bigarren domeketan. Ekimenak urtebete egin zuen azaroan, eta 2024an zehar hainbat pauso eman zuten; esaterako, elkarte bat ere sortu dute, udalagaz elkarlanean jarraitzeko. Abadiñoko azokara joatea herritar askoren hileroko ohitura bihurtu da. Orain urtebete, azoka hau "herria pizteko" modu bat izan zitekeela esan zuten azokaren sortzaileek, "azoka biziberritzeko era bat".



Liburuaren editoreak lurretako udal arduradunekin.

'lurretako berbeta eta literatura: sator hegalaria' liburua kalean

Herriko euskarazko ondare literarioa jasotzea eta zabaltzea izan da auzolanean egindako lanaren helburua

Kultura IURRETA

Auzolanean sortu duten *Iurretako berbeta eta literatura: sator hegalaria* liburua aurkeztu zuten. Liburua bost urteko lanaren emaitza da eta "memoria literario" ariketa dela azaldu zuten. Joseba

Sarrionandia idazle eta liburua-ren editoreak azaldu zuenez, hainbat boluntario testu zaharrak biltzeko asmoagaz hasi zen, "Iurretan euskaraz idatzi dena". Sarrionandiak Xabier Bovedagaz batera egin ditu editore lanak.

Natxo Gonzalez: "Zerotik hasi behar dugula esan diet jokalariei"

Emaitza txarren aurrean, Natxo Gonzalezek hartu zuen lekukoa Amorebietaren gidaritzan, Guerrero ordezkaturatuta

Kirola ZORNOTZA

Julen Guerrero kargutik kenduta, bere ordezkaria aurkeztu zuten azaroaren 6an. Amorebieta Lehenengo Federazio Mailako azkenengo tokian zegoen une hartan, eta egoera

konplikatu honi aurre egiteko helburua zuen Gonzalez entrenatzaile berriak. "Ilusioz" hartu duen erronka da eta badaki, beste ezerean aurretik, taldearen arlo animikoa landu beharko duela. "Horrelako uneetan emo-

zioek errendimenduan eragiten dute. Zerotik hasi behar dugula esan diet jokalariei, liga orain hasiko bagenu lez. Hortik hasiko gara animoa altxatzen eta errendimendua berreskuratzen", adierazi zuen Gonzalezek. Entrenatzaile berriagaz garaipenak etortzen hasi dira.

Gonzalezek hainbat lorpen esanguratsu lortu du; tartean, Bigarren Mailarako igoera bi, Deportivo Alaves eta CF Reus Deportiu taldeekin.



Jabi Luaces kirol zuzendaria, Natxo Gonzalez eta Jon Larrea klubeko presidentea.

ekin
thinking together

BROTXAKETAREN ETA
IJEZKETAREN ALORREKO
KIDE GLOBALA

www.ekin.es



Leire eta Enrike Huerta, Hontza Museoaren 10. urteurrenean.

"Jendeak ez daki zelako lana dagoen Museoaren atzean"

Mañariko Hontza Museoaren hamargarren urteurrena aitzakia hartuta, Enrike Huerta proiektuaren sortzailea eta bere alaba Leire zuzendaria elkarriketatu zituen ANBOTOK

Erreportajea MAÑARIA

Naturako mirariz jantzita, Hontza Museoaren erakusketa leku bat baino askoz ere gehiago da: bizitza bateko ametsaren isla da. 60 urte baino gehiagoan altxor naturalak biltzen eta mimoz zaintzen daramatzan Enrike Huertak eta bere alaba Leirek, museoaren zuzendariak, naturagazko maitasuna darion fami-

lia-proiektu bihurtu dute espazio hori. 2.000 pieza dituzte ikusgai, eta 45.000 inguru biltegian gordeta, espazio faltagaitik. Urteurrena ospatu zuten Mañariko museoan. Bertan elkartu ziren Durangaldeko eta baita Bizkaiko Foru Aldundiko instituzioetako ordezkariak.

Historian atzera eginez, Leire Huertak museoaren hasiera go-

goratu zuen ANBOTOKo elkarriketan: "Emaizta ikusita merezi izan du, baina jendeak ez daki zelako lan gogorra dagoen Museoaren atzean. Guk hau hartu genuenean zulo bat zen: beltza, zikina eta iluna. Orain 10 urte ezinezkoa zirudien hemen museo bat zabaltzeak. Geuk egin dugu dena, geure eskuekin. Hondeamakina txiki bat hartu, ha-

rriak mugitu, garbitu, pintatu, beira-arakak muntatu... Hamar urtean apurka egin dugu, solairurik solairu eta gelarik gela. Lan gogorraren emaitza da". Horrela sortu dute museoa, harriarik harri.

Utopia errealtate

Enrike Huertari gaztetxotik piztutako ilusioak aurrera jarraitzen du. "12 urte nituenetik nabil piezak batzen. 14 urte gurasoek Donostiako Aquariumera eramanez ninduten. Zer zen hura! Orduan jabetu nintzen Durangon ez zegoela horrelakorik. Orduetik dator museoaren ideia. Gerora, utopia bat zena errealtate bihurtu zen", gogoratu zuen Enrike Huertak.

Museoa Durangon

Hontza museoak kokaleku handiago eta zentralago bat izatea izan da beti huertatarren ametsa: kokalekua Durangon izatea. "Borrokan jarraitzen dugu, aldiro ateak jotzen, ahaztu ez dadin. Museo zabalduta, ametsa egia bihurtzea lortu genuen, baina hau ez da Durango. Garraio aldetik duen komunikazioa, han dabilen jende emaria... Eta espazio faltaren kontua ere aipatzekoa da", azaldu zuen Leire Huertak. Enrikek badu pena hori: "Gazteek jarraituko dute, horrek ez nau arduratzen. Baina ni bizi naizela museo Durangon ez ikusteak... Horrek min ematen dit bihotzean".

"NI BIZI NAIZELA MUSEOA DURANGON EZ IKUSTEAK... HORREK MIN EMATEN DIT BIHOTZEAN"



Esne Beltza Durangoko jaietan.

Euskarazko ekintza kopurua gutxitu egin da sanfaustoetan

Berbarok Durangoko jaietan programatu dituzten ekitaldietako hizkuntza aztertu du

Herririk herri DURANGO

Jai Batzordeak eta Txosna Batzordeak San Fausto jaietan programatu dituzten ekitaldietako hizkuntza aztertu zuen Berbarok. Elkarrekin ondorioztatu zuenez, ele bitan egin ziren ekintzek gora egin zuten, euskara hutsezko proposamenen kaltetan.

2022ko datuekin alderatuta, euskara hutsezko eskaintzak behera egin zuen, ele bitan egin zen eskaintzaren mesedetan. Gainera, euskara hutsezko ekitaldien beherakada jaiak antolatzeaz arduratzen diren organo nagusi bien programazioan igarri zuten. Elkarrekin jaietako ehun ekintza behatu zituen. "Ehun ekintzotatik 43 euskaraz izan dira, 33 ele bitan, eta 24 erdaraz", esan zuten.

Eskaintza elebiduna nabarmen igo zen txosnetan, musikan eta musikari loturiko kalejiretan bereziki. Eta horrek euskara hutsezko ekintzak gutxitzea ekarri zuen. Edozelan ere, txosnek sanfaustoak euskalduntzeko egin duten "ekarpen erraldoia" nabarmendu zuen Berbarok.

"Elebidun izateak zahartzaroan eraginik duen jakin gura dugu"

Miren Arantzeta (Zaldibar, 1982) Hizkuntzen Zientzia Kognitiboetan doktoratu zen, Herbehereetan

Herririk herri DURANGO

Miren Arantzeta Ramon y Cajal institutuko ikerlaria da EHUn. Honako hau da Arantzeta eta Gogo Elebiduna taldearen iker- gaia: zahartzaroan hizkuntza gaitasunak aurkeztu dituen alda-

ketak, eta euskararen erabilera eta elebitasunak aldaketak horietan zelan eragiten duten aztertzea. Erantzunak bilatze aldera, Arantzeta Intxaurrendoko Oktogonoan boluntarioen parte-hartzeagaz egin du ikerketa.



Miren Arantzeta.



Garazi Sampedro lasterketako antolatzaileetarikoa bat da.

"Emakumeen Lasterketaren helburua ahalduntzea da"

Azaroaren 25eko egitarauaren barruan, Durango Kirol Taldeak lasterketa jendetsua antolatu zuen

Herririk herri DURANGO

Urtebeteko etenaren ondoren, Durango Kirol Taldeko kideek 2023an berriro Emakumeen Lasterketa antolatzea erabaki zuten. Indarberrituta bueltatu ziren eta lasterketak arrakasta handia

izan zuen. Beste behin ere, lau haizeetara zabaldu zituzten indarkeria matxistaren aurkako aldarriak, azaroaren 24an. Garazi Sampedro antolatzaileetarikoa batek lasterketagaz bat egiteko dei egin zien emakume guztiei.



Pedro Miguel Etxenike eta Jone Guenetxea, San Agustinen.

Pedro Miguel Etxenikereren dokumentala San Agustinen

Izabako zientzialariak Durango bisitatu zuen ikus-entzunezkoaren osteko solasaldian parte hartzeko

Herririk herri DURANGO

Argia, umoretsua eta jakituria handikoa. Horrelakoa da Pedro Miguel Etxenike (Izaba, Nafarroa, 1950) bertatik bertara. Izabako zientzialariaren *El secreto de la naturaleza* doku-

mentalak (K2000 ekoiztetxea) proiektatu zuten azaroan San Agustinen, protagonista bera ekitaldian zela. Dokumentalaren ondoren, Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendariak zientzialaria elkarriketatu zuen.



25. urteurreneko gala. BORJA MEDELA

De Norte a Surrek 25. urteurrena ospatu du

Alicia Gallardoren taldeak hamarkada bi eta erdi daramatza sevillanak lantzen Abadiñon

Herririk herri ABADIÑO

De Norte a Sur dantza taldeak izen-abizenak baditu, Alicia Gallardo dira horiek. Lagun batek bultzatuta, Gallardok orain 25 urte sortu zuen taldea, Abadiñon, eta harrezkero sevillanak irakasten dabil.





Mañaria

Jendea da herria

946 81 89 98 www.mañaria.eus



Okupazioaren aldeko mobilizazioa.

Correoseko eraikin zaharraren okupazioa

Gaztetxetik Kalera dinamikako kideek okupatu eta gero, udalak salaketa ipini zuen

Herririk herri DURANGO

Durangon agerraldia egin zuten Durangoko Gaztetxea "arriskuan" dagoela ohartarazteko, eta bertan negozioaz mahaiagaz jarraitzea eta asanbladako kide bien aurkako salaketak kentzea exijitu zioten udalari. Durangoko Udalak Correoseko eraikinaren okupazioa salatu zuen Ertzaintzan. Eraikina "berehala husteko" kautelazko neurriak eskatu zituen, "eraikinaren egoera larriagaitik". Abenduaren 14an tentsio momentuak sortu ziren okupazioaren inguruan. Ertzaintzaren auto bi eta istiluen kontrako hiru furgoneta Gaztetxeko atarian jarri ziren. Ehun bat gaztek, 'Gaztetxea defendatu' eta halako leloak oihukatu zituzten haien aurrean. Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek Ertzaintzaren kargak salatu zituzten. Biharamunean eraikina hustu zuten. Eraikinean zeuden gazteek "bertatik alde egitea" erabaki zutela esan zuen udalak ohar batean. Gaztetxeko kideek, oster, errelato hori "faltsua" dela diote eta "modu ilegalean" kanporatu zituztela salatu zuten sare sozialetan.

Abenduaren 16an, udalak azaldu zuen diru laguntza jaso zutela eraikina eraisteko. 2025ean lanei ekitea aurreikusi zuten.

Tabirako Baque Alai, saskibaloitalde bat baino askoz gehiago

Kirol egokituko Durangaldeko lehenengo kirol taldea sortu zuten maiatzean, Tabirakoren aterkipean. 16tik 20 urtera arteko 15 gazte dabilta entrenatzen Durangoko Fray Juan de Zumarraga Institutuan



Tabirako Baque Alai saskibaloitaldeko kideak.

Erreportajea DURANGO

Tabirako Baque Alai taldeak BBK Saskibaloit Ligan jokatzen du, Bizkaiko beste zortzi taldegaz. Esti Ortuzarren alabak taldean jokatzen du. "Durangaldean kirol egokituko talde bat

izatea behar-beharrezkoa zen. Umeak pozez zorutzen daude", azaldu zuen Ortuzarrek abenduan ANBOTOn egindako erreportajearen. Iñigo Uriarte ere taldeko gurasoa da. "Poz handia hartu genuen, guk dugun helburua

eurek ikusgai egitea delako gizartearen aurrean, eta, bestalde, bultzada handia izan da euren autoestimurako. Esperientzia hau guretzat ez ezik herriarentzat ere garrantzitsua dela uste dut", azpimarratu du Uriartek.

IÑIGO URIARTE:
"ESPERIENTZIA HAU GURETZAT EZ EZIK HERRIARENTZAT ERE GARRANTZITSUA DA"

Arantza Bilbao eta Esti Gerrikabeitia Fray Juan de Zumarraga institutuko Zereginen Ikaskuntzarako Gelako irakasleek bultzatu dute taldearen sorrera. Eta orkestra hau guzti hau zuzentzen duten lema-zainak Maren eta Harbil Labrit dira. Ahizpa biak dira taldeko entrenatzaileak. Taldearen inguruan badaude euren aletxoa ipintzeko prest dauden laguntzaileak ere. Saskibaloian jokatzen duten LH6ko Kurutziagako lau ikaslek gida lanak egiten dituzte. Malen Bilbao, Simone Urquijo, Izadi Ortuzar eta Sare Berriozabal dira jokalariaik kantxan bideratzen dituztenak, ezin hobeto bideratu ere.

Kulturazaleek gogoz erantzun diote Azokaren deiari

Jendetza bildu zen Azokaren bueltan. Guneetako arduradunek oso balorazio ona egin zuten

Kultura DURANGO

59. Durangoko Azokak Benito Lertxundi omenduz itxi zituen ateak; Landakon zeuden musikari, bisitari eta erakusmahaietako kideek *Oi ama Eskual Herri* kanta abestu zuten. Durangon jendetza ibili zen Azokak iraun zuen egunetan.

"Egunotan izan dugun bisitarien joan-etorriak erakutsi digu kulturazaleak ardura hori hartzeko prest daudela. Horrek guzti horrek pentsatzera garamatza kulturazaleek agertu duten nahia praktikara eramateko egiturazko

espazioak ugarituko bagenitu euskal kulturgintzak ohiko hartzaile gehiago izango lukeela urte osoan zehar", azaldu dute antolatzaileek balorazioan.

Euskal Dendari dagokionez, 30.730 bisitari izan ditu guztira. Iaz baino egun bat gutxiago egon da zabalik, eta horregaitik eta eguraldi txarragaitik ez da heldu iazko 41.000 bisitariko kopurura. Eguenean, lehenengo egunean, 5.200 lagun izan ziren bertan. Barikua bereziki arrakastatsua izan zen, 12.700 bisitarigaz. Une askotan ilara luzeak izan ziren.



Durangoko Azoka.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA



ESKAINNTZA

0 urtetik 18 urtera
bitarteko hezkuntza
eskaintza



HELBURUAK

Ikasle eleanitz,
kritiko eta
euskaldunak



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuaren
ziurtagiria.
Bertokoa, ekologikoa
eta sasoikoa.





Aholkularitza
fiskala



Kontabilitate-
aholkularitza



Lan-
aholkularitza



Kontu-
auditorretza



Aholkularitza
juridikoa



Merkataritza
eta finantza

Zumalakarregi Kalea, 18, 1ºA - DURANGO



688 831 836



946 818 636



clientes@gualbiasesores.com